

ttipi-ttapa

216. zenbakia • 1997ko urriak 23 • XVI. urtea




Feriak heldu dira

Elizondon, ortziral honetan ospatuko da ferien egun nagusia eta, ohitura denez, ez dute aziendek, saltzaile postuek edo pilota partiduek hutsik egingen. Larunbatean, garai bateko atsoferie atzenduxe, animazio gutiago egonen da. Hori dela eta, Euskal He-

Elizondon hasi eta, laister, Donexztebe eta Lesakan txanda hartuko dute

rriko feria eta merkatuen historia, garapena eta gaur eguneko egoeraz aritu gara erdiko orrialdetan.

Gehigarri berezia



Maria Jesus IRUNGARAI:
ADACEN erakundekoa

«Inork ez du miraririk egiten baina elkarteak laguntza eskaintzen du» dio burmuin gaitza duten eriak eta senideak biltzen dituen elkarte honetako Baztan-Bidasoarako ordezkariak. «Zure problema berezuekin bertze jendea ikusten duzunean, hobekiago konprentzen zaituztela iruditzen zaizu» dio amaiurtarrak. 3

4 Erreportaia: Hil ondotik ere bizileku bila

Domisaindu edo Santu Guzien Eguna hurbiltzen ari dela eta, eskualdeko kanposantuen egoeraren eta historiaren berri jakin nahi izan dugu.

28 Kirolak: Juanjo Urrutia

Lau terdiko txapelketa ofizialean—ez Asegarcekoan—parte hartzen ari den eskualdeko ordezkari bakarrarekin solastu gara. ASPE elkarte berriko kidea ere bada saldiastarra.

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta erabili!





esakako
ENE
entzerian,
rrate baterako,
5eko
ESKONTUA
zanen
uzu
ortseterian
ta %10ekoa,
erriz,
entzerian...

TTIPI TXARTELArekin

dirua eta
gauza
gehiago ere
irabazten da



eta
erako
DURNE
aurrendako
ropa denda,
%10eko
ESKONTUA
zanen duzu
000 ptatik
oitiko
rosketa
in ezker...

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
saltzen dituen txartelak
erosiz, gauza aunitz lor
ditzakezu: ttipi-ttapa
lagundu, eskualdeko

DESKONTUAK

AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ Bertiz %10

AUTO TALLERRAK

MENDIAUR MOTOR Doneztebe %10 Kubiartetan
SANPI ARAGON Doneztebe %10 Kubiartetan
PEDRO GARMENDIA Elizondo %20 Olio aldatzeak
DATUGELAY Elizondo %15 Bateria + amartiguadoreak
SANSINENA Elizondo %15 Olio aldatzeak %20 Frenoak
LACOSTA Irurita %100 Pre-ITV
ZALAIN MOTOR Bera %5 Errekanbiontan

AUTO-ESKOLAK

SEMPER Bera %10 Matrikulan

ARGAZKI DENDAK

GOIKO Bera %10 Errebelatze eta arg. materialak
AYLA Bera %10 makinatan izan ezik
MENA Doneztebe/Elizondo %10
ZALDUA Doneztebe/Elizondo %10

ARROPA DENDAK

EDURNE Bera %10 (5.000 Patatik. aurrera)
SAIOA Doneztebe %10
J.J. PICABEA Doneztebe %10 Galtza marka batzuetan ez
TXIRRISTA Doneztebe %10
KAMAMILA Doneztebe %10
PICABEA BOUTIQUE Doneztebe %10
IPINGI Elizondo %10
COCOS Elizondo %10
KATTALINGORRI Elizondo %10
FANTXIKE Elizondo %10 (5.000 Patatik. aurrera)

EDARI BANATZAILEAK

MANUEL TABERNA Bera %3

ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS Lesaka %5 Elektrogailuetan %15 Antenetan
ALTZURI Lesaka %5 Elektrogailuetan %20 Mat. elek.
RADIO BIDASOA Bera %10 Deskontu baleak

ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA Doneztebe %5 Kosmetikan %10 Oparietan
BEATRIZ Elizondo %10 (5.000 Patatik. aurrera)
MARIAN Lesaka %10

KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK Elizondo %8
ZELA KIROLAK Bera %10
AGARA KIROLAK Bera %10 Kirol Artikuluetan
M^a LUZ SPORT Bera %10 Arropetan. Kirol artikuluak ez.

LENTZERIAK

M^a CRUZ Doneztebe %10 (5.000 Ptatik. aurrera)
MAITE Elizondo %10 (5.000 Ptatik. aurrera)
DENE Lesaka %5 Kortseterian %10 Lentzerian

LIBURUDENDAK

NAFARPRESS Elizondo %10 Liburu eta ikas-materialak
LEGARRA Lesaka %10 Lib. + ikas-mater. (1.000 Pta.)

MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK Doneztebe %6
LEIZA Elizondo %10 Sukalde mobletan

OPTIKAK

OSTARGI Bera %10

ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS Bera %10
GONI Elizondo %10 (2.000 Ptatik. aurrera)
B. ALMANDOZ Elizondo %10 (3.000 Ptatik. aurrera)
NEREA Doneztebe %10
OSTIZ Doneztebe %10

ZURGINAK

ZIME DI Etzalar %5 Sukalde eta armario enpat.



DATUAK.....

❖ M^a Jesus Irungarai, Makitenea etxeko amaiurtarra ADACEN erakundeko eskualdeko ordezkaria da.

❖ Erakunde honek, Nafarroan burmuin gaitza duten eriak eta beraien senideak biltzen ditu.

❖ Elkarteak hiru urte baditu ere, Baztan-Bidasoako jendea-ri ortzegunean, urriak 23, aurkeztuko zaio, arratseko 7etan Elizondoko Arizkunenean.

❖ M^a Jesusen kasuan, bere senarra da eritasun hau duena, orai zortzi urte izandako trafikoi istripu baten ondorioz. Gorputz erdia paralizatua eta solasik gabe gelditu zen.

✎ M^a Jesus IRUNGARAI ADACEN erakundekoa

"Inork ez du miraririk egiten baina elkarteak laguntza eskaintzen du"

ZER DA BURMUIN GAITZA? ZERGATIK SORTZEN DA?

Bizitzan izandako istripu batengatik, buruko kolpe batengatik edo tumore batengatik burmuinean sortzen den lesioa da. Ongi egotetik, bere buruen jabe ez izatera pasatzen dira. Burmuin elbarritasuna -ASPACEn daudenak, adibidez- sortzez datorren eritasuna den bitartean, burmuin gaitza bizitzaren edozein momentutan sortu daiteke.

ZEIN ONDORIO IZATEN DITU ERIENGAN?

Ibiltzeko zailtasunak -hemiplejiak, adibidez-, solasteko arazoak, zenbaitetan depresioak, eta gizartean integratzeko problemak dituzte, bertze pertsona batetaz dependitzen baitute gauza aunitzetarako.

ADACEN ELKARTEAK ZER ESKAINTZEN DUE AFETATUEI ETA BERAIEI SENIDEI?

Orai hiru urte sortu zen eta Iruñean du egoitza. Baina hemen inguruan afektatu aunitz daude eta elkarteak ezagutzera eman nahi zaie ortzeguneko presentazioan. Inork ez du miraririk egiten, baina elkartearen bidez gauza gehixeago lortzen dira. Seguridade Sozialak alta ematen duelarik huts bat gelditzen da eta ho-



«Elizondon logopeda eta fisioterapia zerbitzua eskaini nahi da»

ri bete nahizik gaude, errehabilitazioaren bidez, eriei motibazioa eta ilusio gehiago eman. Egoera hobetzen badute animoa hartzen dute eta hobetzen ez bada ere, duten guti hori mantendu. Familiak elkar laguntzeko taldeak osatzen ditu elkarteak, sikologo batekin biltzen gara, hilean gehin. Zure problema beretsuekin

bertze jendea ikusten duzunean, zurea kontatu eta hobekiago konprenitzen zaituztela iruditzen zaizu. Eskapebalbula bat bezala da. Gauza aunitz ez dira soluzionatzen ahal, baina laguntza beti hor dugu. **GURE ESKUALDERAKO ZERBAIT BEREZIA ANTOLATU NAHI DUZUE?**

Bai, Elizondoko Osasun Zentroan logopeda eta fisioterapia zerbitzua eskainiko da, hemengo jendea Iruñeragan ez dadin. Elkarteak ez du diru sobera, baina Osasun Zentroan

bada gimnasioa eta hori erabiliko da. Horretarako prest dauden espezialistekin mintzatu gara eta, seguraski, eriak mugitzeko eta laguntzeko objetoreak hartuko lirateke. Zerbitzuaren erdia eriek edo bere familiak ordainduko luke eta bertze erdia ADACENek. Horretarako, jendea sozio egitea eskatzen da eta edozein egiten ahal da ez da nahi-taez eria edo familiakoa izan behar. Zenbat eta gehiago izan, orduan eta indartsuago eta hobea izanen da elkarteak.

► *"Zure problema beretsuekin bertze jendea ikusten duzunean, zurea kontatu eta hobekiago konprenitzen zaituztela iruditzen zaizu."*

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

Azaroaren lehenean, Domisaindu edo Santu Guzien Egunean, lorez eta otoitzez beteko dira hilerri edo kanposantu guziak. Gure difuntuak gogoratzeko egun berezia baitugu egun hori. Azaroaren bia bada ere, elizaren egutegian, hildako guzien oroitzapenari dagokiona, hilabetearen lehen eguna erabiltzen du gizartearen gehiengoak horretarako. Egundorretan itxura bikaina agertuko dute kanposantuek, baina urtean zehar nola egoten dira?

TESTUA: AITOR AROZENA ETA
PELLO APEZETXEA
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA



Hil ondotik ere bizileku beharrean

gaur egun, herri gehienetan ezagutzen dugu kanposantu eredua joan den mendekoā da. Aitzinetik, elizsan bertan

—Lesakako elizan, oraindik ikus daitezke familien abizenak edo etxe izenak aulkietan— eta gero eliza inguruan —Sarako hilerri zaharrean bezala— luperatzen ziren hildakoak. XIX. mendeko eredu honek, ordea, arazo nagusi batekin topatu da mende honetan, leku eskasia, alegia. Izan ere, gure herrietan bizi den jende kopurua handitzeaz gain, herrian bertan sortu eta kanpoan bizi den pertsona aunitzek beraien sorterrian hartu nahi baitute lurra.

Hori dela eta, zenbait herrietan, kanposantuen anpliazioa egin dute berriki. Donezteben, adibidez, joan

den urte bukaeran 108 horma-hilobi edo nitxo egin ziren eta «hamar bat falta badira ere, gainerako guziak saldu dira», Miguel San Miguel alkateak dioenez. Nitxo hauek indibidualak dira eta 99 urterako saltzen


dira, 118.590 pezetaren truke. «Orain hamabi urte 48 nitxo berri egin ziren, baina leku falta nabaria zen eta jendea kezkatzen hasia zen, horregatik egin dugu anpliazioa», alkatearen arabera.

Bertze batzuetan, eredu berriak bilatzen ari dira. Donamarian, kanposantu guziahorma-hilobiekin osatu dute duela hamar urtez gerortik, eskualdean dagoen bakarra. Honek zenbait arazo sortu zituen bere garaian,

Eredu ezberdinak eskualdean

ORONÓZ-MUGAIRI

Orain hiru urte egin zuten anpliazioa, 30 panteoi (6 lagunendako) eta lur emateko 30 partzela berri egin. Panteoiak 450.000 pezetan saltzen dira, partzelak 10.000 pezetan, herrikoei. Horma-hilobirik ez dago.



batez ere lehengo kanposantu ttikian panteoiak zituzten familien arrenkurak medio. Geroztik, herritar gehienek beraien hilobia erosi badu ere 1987an eta 1992an hamar mila durotan erosi zitekeen hiru nitxoko lerroa, baina udalak hasieran erosi zutenei IPCari dagokion igoera itzuli die, «*bidezkoa ez zen egoera moldatzeko*», Ricardo Sagaseta alkatearen erranetan. 1992tik honat, 50.000 pezeteki IPCa gehitu behar zaie. Geroztik, herritar gehienek beraien hilobia erosi badu ere oraindik senidea hil eta gero hilobia erosi duen bakarren bat ere ba omen da.

Saran, eliza ondoan duten kanposantuaz gain, bertze berri bat egin zuten, duela hamabortz bat urte. Honetan, lur azpiko zulo bakoitzean hirulau nitxo daude eta lur gaineran, sarritan, ez da hilarri ttiki bat bertzerik ageri. Gainerakoan, belagi ederra eta atsegina ikusten da, gurutze, lapida edo marmolaren arrastorik gabe. Hilerrien bertze ikusmolde bat, dudarik gabe.

Denbora baterako edo betirako hilobiak

Kanposantu guziak Herriko Etxeen esku izaten dira. Bertizaranan, ordea, kontzeju bakoitza (Oieregi, Narbarre eta Legasa, alegia) da jabea eta hilerrien zainketaz arduratzen dena. Gauza beretsua gertatzen da Baztanen. Balleko Etxeak, herri bakoitzeko alkateen esku uzten du afera hori. Elizondon, momentuz, ez dute leku faltarik, Santia-

go Aldako alkatearen erranetan. «*Bi anpliazio egin izan dira eta biak beteak daude. Oraindik ez dugu berriz zabalitzea pentsatu, hori bai, kanposantuak moldaketak behar beharrezkoak ditu*» Elizondokoa modelo mixtoa dela erran daiteke, ohiko hilobiekin batera, 34 nitxo baitaude. «*Hilobiaren jabetza ez da bertirako. Gurasoetatik seme-alabetara pasatu daiteke*—dio alkateak—, *baina ez lehengusu edo zuzeneko familia ez direnei. Zuzeneko seniderik ez dagoenean, jabetza galtzen da. Hori dela eta, arazoak izan ditugu Hegoameriketako bizi eta hemen lurperatzea nahi dutenekin, baina araudia horrela dago*».

Bertze, zenbaitetan, berriz, hilobiak hamar urtetik hutsutzea dute erabakia, arazoari aterabidea emateko. Hilobian dagoenaren hezurak bildu eta bertako txoko batean utzi. Horrela egiten da Goizuetan. Hara nondik sortzen den familia ezberdineko hildako bat baino gehiagoren oroitzapen seinaleak hilobi berean paratzea.

Hilerrietan gauza gehiago ere ikusten da, ez baitugu atzendu behar hilerriak ere herritarren ispilu eta iduri direla. Izan ere, loreak eta harriak, larrak eta marmolak, jendearen kulturak eta sentsibilidadeak eragiten ditu. Nahiz eta ez horrek solik, kanposantutarako harriak prestatzen dituztenek ere badute zerikusia, horiek egiten dituzten eskeintzen arabera erabakitzen baitu aunitzetan jendeak. ■



Pello APEZETXEA Etxalarako apezte

«Gure hilerriek nortasuna galtzen ari dira, hiri haundien antzera moldatzen ari baitira»

Gure hilerriak ez dira hain aspaldikoak. Gobernuaren aginduz, Espainiako herri gehienetan hilerri berriak ireki ziren, XIX. mendearen erdi aldera. Osasunaren aitzakiatan, eliz barnean eta eliz inguruan ehortzeari utzi eta urrunago lur emateari ekin zioten. Aintzineko mendeetan, izan ere, eliza bere eta ondoko eremua zen herriko hilerria, gaur egun Saran eta hainbat herritan ikusten ahal dugun bezala. Eta, bertzelde, oraindik ere ikusgai ditugu eliza barnean lurperatzearen aztarnak edo nola baiteko seinaleak: solairua hilobi forma eta neurriz egina, edota aulkietako etxe izenak, bere hilobia izan zenaren parean, Lesakan adibidez. Eta ez da hainbertze urte, emakumeen aulki bereziak eta haien aurrean zeuden argizaiolak, eta bizten ziren argiziriak ezagutu ditugula. Eliz ondoko hilobiek berriz, herri batzuetan ageri diren hilarri borobilak utzi dizkigute, aitzineko mendeen oroigarri. Hilarri horietako gehien erakusten diguna Etxalar dugu, bere eliz inguruan.

Domisaindu edo Santu Guzien egunean hilerriak garbituak eta lore berriz apainduak agertzen badira ere, ez da berdin gertatzen urte guzian. Herri batetik bertzera ere alde haundia dago. Hurbilago izateaz gain, ateak gau eta egun zabalik dauzkatenetan jendea maizago joaten da, eta hobeki zaintzen dituzte hilobiak. Horretaz aparte, nortasuna galtzen ari dira, hiri haundien antzera marmola eta toki guzietako formak nagusitzen baitoaz.



ETXALAR

Garai bateko hilarri borobilak, elizaren ondoan

DONAMARIA

Oso-osorik horma-hilobiekin osatua dagoen bakarra.

1987an zabaldu zuten, berria egin ondotik, aitzinekoak arras leku gutti baitzuen. Hiru nitxo-ko lerroa

50.000 pezetan saldu zuten orduan eta normalean, famili batekoak erosi zuten lerro osoa. Guzira 66 lerro daude, beraz ia 200 hilobi.

SARA

Orai hamabortz urte egin zen Sarako bigarren hilerria. Ongi zaindutako belagi batean daude hilobiak. Zenbaitzutan, lur azpian, hiruzpalau nitxo-ko lerroak daude, famili berekoak. Betiko hilerria eliza ondoan dago.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.500 ALE

Argitaratzailea: ttiipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

http://www.encomix.es/ttiipi-ttapa

e-mail:

ttiipi@encomix.es

e-mail:

ttiipi@mail.sendanet.es

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-

goien. **Publizitatea:** Miren Kar-

nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

Arozena, Asier Gogorza, Joxe-

manuel Irigoien. **Administrazioa:**

Maia Goia. **Erredakzio taldea:**

Pello Apezetxea, Juainas Paul,

Kristina Boan, Bittori Telletxea.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena, Juana Mari

Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban

Sasi, Txema Aldabe, Patxi Otxan-

orenena, Ixabel Maia, Josune Etxe-

este, Pablo Mendiburu, Joseba

garabide, Alizia Olaiola, Mar-

riari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

el Gerendiain, Jacqueline, Eli-

abet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

ar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Kristina Boan.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-

roa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

ier Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.

ttiipi-ttapak ez du bere gain har-

zen derrigorrez, aldizkarian adie-

zitatiko erranen eta eritzien eran-

zuzikizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Be-

ra, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

an, Urdazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortzirietako Eus-

ara Mankomunitatea, Malerre-

ako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-

tea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Nola ikusten dugu heriotza?

Larhongo Oihartzunak



Paul DELPECH
Sora

Erran litake larrazkena dela Euskal Herriko sasoin ederrena.

Mendian, oihanek eta inguruek itxura xoragarria daukate, gure begien lilurragarri.

Herrirathurbiltziarekin, laketa itzulino baten egitea osoki artatuak diren elizen ingururat ainitzak dira hil herrien erdian. Omin Saindua hurbil dela ta, lore ederrez dire apainduak.

Euskaldunek, hilen alderat dugu, zordun orroitharrien sakona... Maiz gogorat heldu zaiku: eta geroa? Zer da geroa?...

Guk fededunek amaren altxotik badakigu zeri buruz goazin!... Bakarrik, gure haur denboratik hunat aldatu dire ikusmoldeak ikasi zaukuten zeruan sartzea izanen zela arras zaila, jaunkoaren gugamendua xorrotxenekarik zelakotz... orai aldiz, herioari buruz kuraie emaiten daukute errenez, Goiko Jauna dela dena barkamendu...

Maiz heldu zaizkit gogorat gure amatxi maitearen hitzak: "Nehori kalterik ez egin, ahal guziz egin ongia", eta ezin baztertu bururatze hura gogoan harturik, diot: Gauden Prest.

Neri beldur gehiena ematen didana nola hilko naizen pentsatzea da



Angel GOIZUETA
Arantzara

Gaur egun gero eta gehiago pentsatzen dut heriotzean. Heriotza

egiazko gauza bat da jaiotzen garenetik eta noiz etorriko zaigun ez dakigu, orduan bitartean, tira!

Heriotza denok seguru bezala dugu, eta neri beldur gehiena ematen didana nola hilko naizen pentsatzea da. Ez istripuz edo hiltzeko bertz moduak, bai zik eta azken momentu horretan nola egonen naizen ni, bakardadean, edo berotasunarekin.

Oinazeak ere beldurra ematen dit. Gainera oinazea kentzeko tresnak baditugu, baina aunitan ez digute tresna hoiek erabiltzen uzten. Hor dago eutanasia, eta baita botika edo medikamentuak ere, zenbait momentutan.

Nik argi dut heriotza hor dagoela eta ahalik eta luzeen etortzea nahi nuke. Bizitza naturaren prozesu bat da, jaio eta hil egiten gara, eta nere ustez hil eta gero ez dago deus ere ez.

Bertzetik, donantea ez naiz baina gai horrek pentsarazten dit, hor egoten ahal baita bertze norbait bere bizia salbatzeko espe-roan.

Heriotza: errealitate amankomun bat



Jose Mari ARRAZTOA
Soziallogoa. Elizondo

Pertsonei larritasun gehien eragiten dien gaietako bat dugu heriotza.

Egoera pertsonalaren arabera larritasun hori aldatu egiten da, adinarekin, senideen edo norberaren eritasunaren aitzinean are agotuz. Nolanahi ere, guztiok ikusi beharko genuke heriotza bukaera bat balitz bezala, bizitzaren amaiera.

Gizakiak duen mugarik garrantzitsuena da heriotza. Iragana atzenduta dagoela pentsatzen dugu orokorrean, ez duela inportik. Inporta diguna eta asko kezkatzen gaituena gelditzen zaigun bizi zatia da, laburtzen, tikitzen doaielako.

Orduan, erantzunik gabeko galdera batzuk sortzen zaizkigu gure baitan; noiz iritsiko ote da nere ordua?, nolakoa izanen da nere heriotza?, zer ote dago gero?, nere helburuak betetzeko astia izanen ote dut?... galdemodu hauei erantzuna erlijioan bilatu ohi zaio, erabaki ahalmena haren esku utziz.

Bertze pertsonekin lotzen gaituzten lokarrien haustura da heriotza, eta hauek horren sakonak izan daitezke zenbaitetan, non bertzeen heriotzak gure biziari berari autsiki egiten dion.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egutero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittoria 6, Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328-133346. Faxa: 133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

IRAKURLEAK MINTZO

**Telefonicarener
zerbitzu berriak:**

Berriki Telefonicatik dohaneko Erantzungailu Zerbitzuari buruzko informazioa bidali digute. Honek aukera berri aunitz eskaintzen dizkigu: erantzungailuan mezuak hartzeko aukera, munduko edozein puntutatik gure telefono zenbakian utzi dituzten mezuak hartzeko aukera, telefonoz solasean ari garenean aldi berean bertze dei bat hartzeko aukera... Halere, honen guziaren berri ematen digun liburuxka erdara hutsez bidali digute. Gainera, erantzungailuaren zerbitzua erabiltzen hasi eta bertan entzuten dugun aho-tsä ere erdaraz ari zaigu eta haxe da eskutitz honen arrazoa.

Liburuxka irakurtzen hasiz gero, berehala ikusiko dugu ahots horren hizkuntza aldatzeko aukera ematen duela zerbitzu horrek. Gaitzerdi. Liburuxka honen arabera, ahots erdaldunak ematen dituen aukera ezberdinen artean 4 zenbakia markatuz gero norberaren lurralde autonomoko hizkuntza hautatzen ahal da; euskara gure kasuan. Hautaketa hori egin ondoren, zerbitzu horretako ahotsak euskaraz hitz egin beharko liguake.

Beraz, aukera hori aprobetxatzeko asmoz, Erantzungailu Zerbitzuaren hizkuntza aldatzeko ekin diogu. Ahots erdaldunak 1, 2 eta 3 aukerak eman dizkigu baina aurretian aipatutako 4.a (hizkuntza aldatzeko) ez. Harriturik, Telefonicara deitu dugu gertatutakoa azalduz. Bertan aberia izan litekeela erran digute eta beraz, aberietako telefonora deitu dugu: ez omen dago aberiarik. Berriz ere Telefonicara deitu eta orduan azalpenak eman dizkigute: Nafarroan oraingoz (?) hizkuntza aldatzeko aukerarik ez dugu izan eta beraz, Erantzungailu Zerbitzua erdaraz izan dugu.

Gainera, ez omen dakite noizko izan dugun aukera hori.

Denok dakigu Telefonicari konpetentziaren garai latzak ailegatu zaizkiola eta honen aitzinean, bere zerbitzua hobetzeari ekin diola. Halere, zerbitzua hobetzeko prozedura aldrebesa hautatu dutela erraten ahal dugu. Izan ere, oraindik eman ezin duten zerbitzuaren propagandaa iada egina baitute. Ez alda aldrebesa? Eta honen guziaren gaineratik, euskara eta euskaldunak berriz kaltetuak izan gara.

PATRI ARBURUA

**Lesakako alkateari
gutun irekia:**

Gutun honen bidez, horren garrantzitsua den Lesakako Udal Plana inguratzen ari diren hainbat jarrera eta akatsen berri eman nahi dugu. Lesakako etorkizuneko diseinua uda betean aurkezte; Plana ezagutzeko eta alegazioak aurkezteko hila-beteko epea ipintzea; tekniko proiektugilea hiru goizetan agertu eta informazioa nahi duen pertsona bakoitzarentzat ordu laurden bazarrik ematea; Batzar-Aretoa herriaren mapaz osatutako panel bat jartzea eta proiektuaren memoria uztea, nori galdetu egon gabe; aztertze eta lantzeko planoen kopien eskaera ukatzea; proiektuaren azterketarako eskatutako epearen luzapena ukatzea alegazio-kopuru handia aurkeztu denean; gai honi buruz bilera ireki bat egiteko Batzar-Aretoa erabilpena ukatzea... Honi gehitzen badiogu proiektua ia urtebete geldituta egon dela, EAJko udal taldearen jarraerak bakarrik uler daiteke modu honetan: edo jokabide interesatua dagoelako edo hizpokeria eta informazioa oz-

topatzeko borondatea egon delako, ondorioz Udal Plana edukinaz hustu eta herriarren adierazpenak anulatatu. Gauzak okerxeago egiteko erabateko okultismoa praktikatzeko geratzen da soilik.

Planaren edukin sartuz, elitista, luxuzkoa eta espekulatibo bezala kalifikatzen dugu. Aurrikusitako eraikinen gehiengoa etxebizitzak adosatu, familibakarreko eta bakanaz osatzen da. Hauak ez dute erantzuten, ez Lesakako errealtatearen eskaerari eta ez beharrei; ordea Lesaka erresidentzial bat konfiguratzeko du. Etxebizitza kolektiboak gutxi dira, babestutako gutxiago eta inongo lehentasunik gabekoak.

Azken hamarkadetan, Lesakako biztanlegoaren kopuruak gorabehera gutxi izan du. Biztanleen kopuru handiena gaztediak osatzen du (15-35). Bere errealtatea, nahiz eta herrian lantegi handia egon, langabezia eta lanaren behin-behinekotasuna dira. Hau dela eta gazte asko beren gurasoei bizitzera behartuta daude. Orduan, norentzat mota honetako horrenbertzeko eraikin? Lesakako populazioaren benetako beharrei lehentasuna emanen dien etxebizitzak plana behar du:

-Hutsik dauden etxebizitzetara irtenbidea eman behar zaie, alokairu edo jabegoan erabili ahal izateko.

-Eraikin berriak behar izanez gero, ekimen publikoaren bidez izan daitezkeen kooperatibak bultzatuz, babes ofizialeko etxe kolektiboak lehenetsiz, babestutako alokairurako kopuru bat utziz... Eraikitze horrenbertze lursaila ez da behar eta ondorioz lesakarren bizi-kalitatea hobetzen lagun dezaketen aisigunerako lursailak geratzen dira.

Bertze aldetik lokal publikoak daude. Lesakarren zereginak burutzeko beharrez-

koa den kultur-azpiegitura definitu eta konkretatu behar da. Ildo honetatik komentuaren egokipena hor dago.

Dudarik gabe, hemen azaldutako guztia kuestionagarria, diskutigarria eta modifikagarria da, baina horretarako eztabaidatu ahal izatea guztiz beharrezkoa da. Orduan Etxegarai, zure jokabideak aldatuko dituzula eta zabalduko hitzak beteko dituzula itxaroten, elkar-uler-tze hobe baten alde itxuragabeko sumindurak ekidinez eta batez ere, gure herriaren etorkizun hobegoi begiratzuz, zure esanera geratzen gara.

LESAKAKO HB, LAN TALDEA ETA
INDEPENDIENTEAK**Kirola Nire Ikastetxean, hori bazka:**

Guraso batzuk gara, eta joan den urriaren 4an Baztan-Bidasoako berte mila guraso bezala, Etxalarako Bentara joan ginen gure alabarekin batera. Gauza zen gure alabari "ohore aipamen" bat eta "trofeo" bat eman behar ziotela "1^{er} Certamen Nacional de Plástica por Autonomías" delakoan parte hartzeagatik. Titulua "El Deporte en mi Colegio" zuen, eta antolatzailea, berriz, "Gabinete de Iniciativas Juveniles" izeneko erakunde edo antzeko zerbait zen; nondik ateratzen inork ez dakiguna. Bentako jantokietako batean zeuden, erakusketan moduan, gure seme-alabek egindako lanak, baina ez zegoen han, gure harriturarako, gure alabari saria eman behar zion epaimaharrik, bai zik eta saltzaile batzuk, estrategikoki kokatuak, enziklopediak, CD ROMak eta ez dakit zenbat gauza gehiago guri saltzeko asmoz, gure alabaren ilusioa amua bezala erabiliz gainera.

Gure alabaren marrazkia bildu ondok, zeina sariekin trukatuta beharra baitzen, saltzaile baten aitzinean jarri ginen. Hark, gure alabaren ahalmen fisiko eta artistikoak goraiatu ondok, adierazi zizkigun produktuen bikaintasunak eta ordaintzeko zeuden modu erosoak. Une horretan adierazi genion bere lan errespetatzen genuela baina ez zitzaigula batera ongi iruditzen haurrak eta haurren ilusioak horrela erabili eta manipulatzeko; berak, berriz, haserre bizian, haxe adierazi zigun: Gure alabaren ikastetxearen baimen osoa zutela eta ez zigutela deus txarrik saldu nahi, alegia, kultura saldu nahiez zebiltzala eta ez droga, errate baterako; hori ez zela gauza perbertsoa.

Guretzat perbertsioa ez dago saltzen diren produktuetan, baizik eta, saltzeko erabiltzen diren metodoetan.

Honerraino marketing-estrategia bat bertzerik ez dugu azaldu, hain zuzen ere, haurren inozentziarekin jokatzuz, helduen kontsumo eragiten duena, eta maiz jokabide horretan erortzen gara. Narrazio honen berezitasuna, ordea, ez dago horretan, baizik eta, parte hartu duten haurren ikastetxeetako Zuzendaritzak guzien babesa eta laguntzarekin egin dela negozio hau, eta horregatik erabaki dugu argitaratzea.

Guri iruditzen zaigu Hezkuntza Zentroek ez dutela horrelakorik onartu behar, hau da, horrelako merkatal munduko praktika ez garbiak, izan ere, horretan kolaboratzeak deus gutxi erakusten du bere ahalmenaren alde, gure seme-alabak kontsumorako pautak kritikoa eta razionalak izan ditzaten erakusteari dagokionean.

JAVIER SOLAGUREN
MIREN A. PEREZ

 **J. Javier Etxeberria** Goizuetako medikua

Meningitisaren kontrako txertoa



Meningitisa deitzen zaio buru eta bizkarreko muinaren azalaren inflamazioari. Haemofilus

Influenzae, neumokoko eta meningokoko xomorroak (bakteriak) sortarazten ditu 100dik 83 meningitis kasu. Haemofilus Influenzae-ren kontrako txerto balio-garria badago, eta azken urte hauetan ume-asko txertatuak izan dira.

Meningokokoak jende askoren sudur eztarrian aur-

etakoak...) sufritzen dute gehienbat.

Hiru meningokoko xomorro klase daude: A, B eta C. Azken urte hauetan 100.000 pertsonetik 7-17 bitarteko meningitis kasu eragin dute urtero. Meningokoko B moeta da gure artean maizena ematen dena (meningokoko kasu guztietatik %83) eta honetarako ez dago oraindik txertorik.

Egun dagoen txertoa A eta Cren kontrakoa da. Herri inguruan 100.000 pertsonetik 10 kasu baino gehiago azaltzen denean ekiten

zaio txertatzeari. Azken urtean Nafarroan meningitis C gaitasunez jotakoak bi kasu izan dira eta hauek txerto adineko pertsonetik kanpokoak izan dira. Gipuzkoan berriz, beste hamar kasu izan dira.

Txertatzeko kopururik urrun geratzen diren zifratan gabilta; urrutia, Arabako lurraldean, bete egin da kopuru hori. Osakidetza txerto kanpaina lurralde guztietara zabaltzeko erabakia oinarritua egon daiteke gizar-tean gai honek sortu duen urduritasunean.

Txertoaren eragozpenik haundienetakoa da urte pare bateko babespena besterik ematen ez dela eta ez dago garbi zer egin beharko litzatekeen hemendik gutxira izurrite emanaldi gogor bat eragitu balitz: berriz ere jende guztia txertatu?

Meningokokoak jende

askoren sudur eztarrian

aurki litezke edozein

momentutan eta ez da

jakiten zer eragiten duen

halako batean gorputzeko

meningeetan sartu eta

gaiztatzea.

Urtetik beheitiagoko

haurrak eta toki itxietan

egon ohi den jendeak

(ikasleak, soldaduak,

erresidentziakoak...)

sufritzen dute gehienbat.

ki litezke edozein momentutan eta ez da jakiten zer eragiten duen halako batean gorputzeko meningeetan sartu eta gaiztatzea. Urtetik beheitiagoko haurrak eta toki itxietan egon ohi den jendeak (ikasleak, soldaduak, erresidentzi-

 **Baztandarren Biltzarra Elkarte**

Baztandarren Biltzarra Bizirik



Uda hasieran burutu ziren bilera desberdinak egin ondoren, Elkarte indartzeko asmoz lane-

an hasi ginen. Hortarako junta berri bat osatu zen, bere arloak hurrengoak izanik: koordinazioa, idazkaritza, diruzaintza, kultur taldeen koordinazioa, herrietako arduradunen koordinazioa eta komunikabideak.

Junta honek, helburu orokor batzuk finkatu zituen, garrantzitsuena, BAZTANGO HERRI GUZTETARA KULTUR EKINTZAK ZABALTZEA izanik. Hurrengo pausua Baztango herriekin lan egiten hastea izan zen. Horretarako herri bakoitzean kon-

taktu bat bilatu, eta guztiekin bilera bat ospatu zen. Bertan bai herrien bai Baztandarren Biltzarren ikuspuntuak agertu ziren, baita hemendik aintzineko harremanak nolakoak izanzen diren ere. Bilera hortatik atratuko inpresioa arras ona izan zen, bildutakoan ilusioa eta borondateaz gain, konturatu baikin jendeak uste baino gauza gehiago antolatzen direla herrietan barna.

Gure ideien artean, aspal-dian aipatu ginuen bezala, Baztango kultur taldeekin batera lan egitea dago. Zentzu hortan zenbait bilera izan ziren eta gure asmoa da epe laburrean berriz ere proiektu horri heltzea.

Hortaz gain, kultur talde desberdinekin eguberritako kulturaldia antolatzen ari gara

ahalik eta leku gehienetara ailegatzea nahi dugularik. Bertze aldetik, arestian aipatu bezala herrietako arduradunekin lanean aritzeko hasmenta bezala, Baztandarren I. go Mus Txapelketa martxan paratu dugu. Gure helburua ahalik eta baztandar gehienek parte hartzea denez, hemendik animatu nahi ditugu baztandar guztiak beraien herrietan apuntatzera. TTIPI-TTAParen aurreko alean aipatu bezala, lehenik herri bakoitzean herriko txapelketa jokatu da. Txa-

Baztandarren Biltzarra

bestari buruz, erran behar da

oraindik ez dagoela gure

proiektuen artean. Halere, ez

dugu inolako zalantzarik

elkartea berpizten badugu

besta aintzinet atrako dela.

peldunek kuartelka egingen den kanporaketan parte hartuko dute (Azpilkueta, Lekaroz, Gartzain eta Alman-dozen), eta hortik atratuko irabazleek finalak jokatu dituzte Oronoz-Mugairen. Akitzeko Baztandarren Biltzarra bestari buruz, erran behar da oraindik ez dagoela gure proiektuen artean. Azaldu dugun bezala gure helburu nagusia momentu honetan elkarte indartzea da gauzak pixkenaka-pixkenaka eginez eta gure ahalaginak zentzu hortan dazi. Halere ez dugu inolako zalantzarik elkarte berpizten badugu besta aintzinet atrako dela.

Beraz, elkarte indartzeko denen laguntza eta ideiak eskatzen ditugu eta animatzen zaituztegu ekintza guztietan parte hartzera.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Argia 97-X-12

«Helburu bat paratu diot nere buruari, final zortzirenetara ailegatu eta Aitor Elkororen aurka jokatzea. Partidu ona egin eta galdutako ezker ez da deus pasatzen. Bietako batek erori behar du».

Mikel GOÑI
Pilotaria
Diario de Noticias 97-X-15

«Plater tiraketan lehiatzea gustoko duen nere adineko neskarik ez dut ezagutzen batere. Ehiztari sutsua izanagatik, mendiak errespetatu eta garbi mantendu behar ditugula argi dut».

Ione FAGOAGA
Lesakako ehiztari gaztea
Diario de Noticias 97-X-8

◆ **Ejerzitotaz aparte, zerbait gehiagori intsumitua?**

◆ Gehienbat ejertzito guzietan.

◆ **Zertan gastatuko zenukeen ejerzitotaz gastatzen den dirutza?**

◆ Ongi aprobetxatu daiteke, gastu sozialendako batez ere.

◆ **Erratzuk dikan gauza berezia?**

◆ Bertako jendea.

◆ **Zergatik doazik gazteak herritik?**

◆ Lanik ez dagoelako, uste dut.

◆ **Oporretan joateko aukeratuko hukeen lekua?**

◆ Kubarat, dudarik gabe.

◆ **Bidai horretan eramanen eta sekula eramanen ez hukeen zerbait?**

◆ Eraman gogoak, eta hemengo oroitzenak hemen utzi.

◆ **Ehiztari-ekologista mestizajea posible duk?**

◆ Ikusi dudanez, ezinezkoa.

◆ **Mutildantzak, neskek baita?**

◆ Bai, noski.

◆ **Zeren truke moztuko hukeen koleta?**

◆ Apostu haundi baten truke.

◆ **Gustatzen zaiken esaldi edo erranairu bat?**

◆ Lagun onen erranei kasu egin edo bidea jarrai.

◆ **Eta ostatulariak, noiz gonbidatzen dik?**

◆ Etxe aurrean, azkeneko potea, beti. Guk ohitura hori dugu bederen.



Xabier OSPITAL
Intsumitua. Erratzu.

ttipi-ttapa

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egingen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

© 631188


ttipi-ttapa



631188

*Zure
publizitaterik
onena*

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27



**Ostargi
Optika**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

PIKABEA

Molinero drogerian
galdeu

pinturak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA


Mariezkurrena eraikuntza enpresak ISO 9000 ziurtagiria lortu du

Kalitatearen aldeko apostua saritzen da

TTIPI-TTAPA

Egoitza Donezteben duen 'Construcciones Mariezcurrena, S.A.' enpresak ISO 900 kalitate ziurtagiria lortu du, ACR eta Promociones y Construcciones de Navarra (Procona) enprekin batera. Modu honetan, Nafarroan sortu, hazi eta mantentzen diren lehen hiru enpresak dira, ziurtagiri hau lortzen.

Kalitatea eta, ondorioz, komertzializazioa hobetzea izan da Mariezkurrenaren apostua, Javier Etxeberria, enpresako gerentearen laguntzaileak adierazi zuenez. «Kalitatea hobetzeraz bultzatu gintuen aspektu nagusia komertzializazioarena izan da. Laister edo beranduago administrazio ezberdinak baloratzen hasi behar dira ez bakarrik bertze administrazioentzat egin dituzun lanak, baita kalitatea ziurtatzeko sistema berritzailea erabili dugulako. Enpresa haundiagoekin konpetitzeko nahitaezkoa ze-



Javier Etxeberria, Mariezkurrenako gerente laguntzailea eskuinaldean ageri da, Procona eta ACR enpresetako ordezkariekin batera D.Noticias

la iruditu zitzaigun». Kalitate hori bultzatzeko, hain zuzen, langileen formazioa lantzen omen du Doneztebeko enpresak.

Kalitatearen hobetze horrek ez omen die baliu izan, ordea, beraien lana hobeki baloratzen eta horren arrazoia, Nafarroako Gobernuak lanak adjudikatzeko erabiltzen duen balorazio sisteman dago, Etxeberria

riaren ustez: «lehiaketa batean prezioa kontuan hartzen dute %85 batean eta %15 bertzerik ez alderdi teknikoak. Azken hauen artean %2-4 soilik baloratzen da enpresak kalitate ziurtagiria izatea. Gainera, garantia epea luzatuz gero, hori alde batera uzten dute. Horrek ez du zerikusirik kalitatearekin edo epeak betetzearekin».

Alakiketan erakusketa zabalik Bertizko Natur Parkean


Bertizko Natur Parkeko Palazioan zabalik egonen da azaroaren 16a bitarte "Alakiketan: Tradizioaren irakusketa bat" izeneko erakusketa. Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Sailak antolatu du erakusketa hau eta bertan euskal folklorearen ikuspegi berri bat eman nahi da.

Panel ezberdinetan dantzak; inauteriak; Mari, Tartalo, Basajaun edo lamiak bezalako pertsonai mitologikoak; udal agintarien sinboloak (makila, ikurrak...); txirula, alboka, txalaparta edo tobera bezalako musika instrumentuak ageri dira, bertzeak bertze.

Panel hauekin batera, aitzinako dantzetan erabilitako arropak ikusgai izanen dira, erakusketa honetarako espreski utzi baititu Argia Euskal Dantzari Taldeak. Ateak zabalik egonen dira goizeko 10etatik 1,30etara eta arratsaldeko 4etatik 5,30etara.



CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA, S.A.
SORRERA
1979
HELBIDEA
Nagusia 28, Doneztebe
FAKTURAZIOA
2.000-2.500 milioi
LANA
Baztan-Bidasoako 130 lagun
LANAK NON?
Euskal Herrian
LAN MOTA
%90ean lan publikoa



BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxe: (948) 63 72 66

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 637503 • LESAKA

Dia %
Autozerbitzua
deskontua

Hamabostero
ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6
☎ 63 14 03 • BERA

Lurraren Egunaren XI. edizioa ospatuko da igande honetan

Sagardo erakusketa izanen da aurtengo berrikuntza nagusia

ASIER GOGORZA

Urriko azken igandea gain gainean dugu eta, egun horretan burutu ohi den XI. Lurraren Eguna dugu solasbide nagusi.

Ekitaldi zerrendari hasiera emateko, goizeko 10,30etan Lizuniagako Igoera Lasterketa pasatuko da Altxate karrikan barna, eta segiduan handik eta hemendik etorritako eskulangileen erakusketa idekiko da. Artisauak ez dira izanen, halere, beren produktuak ikusgai paratuko dituzten bakarrak, Ricardo Baroja eskolan Bortzirietako produktuen (gasna, barazkiak, ezti...) erakusketa eta salmenta paratuko baitute tenore horretan.

Aurtengoan, berrikuntza gisa Sagardo Erakusketa burutuko da lehenbiziko aldiz Lurraren Egunaren barrenean, eta eskualdean egindako sagardoa dastatzeko aukera izanen da goiz parte osoan. Gasna lehiaketarat aurkeztu nahi dutenek, bertetik, goizeko 10,30ak baino lehen entregatu beharko dituzte beren gasnak. Sari banaketa eta enkantea, berri, arratsaldeko 5ak aldera



Artisauen eskulanak ikusgarriak izan ohi dira beti.

Ayla

eginen da Altxateko plazan. Ekitaldi honen ondorekin Amaia eta Kristina taldeak joko du. Erran behar da egun osoan zehar Zizkaitz txaranga, trikitilariak eta akordeoiariak ariko direla giroa berotu alde.

Bainan Altxaten ez ezik, Kultur Etxean ere

izanen da musika aditzez, Kubako "Entrevoces" abesbatzaren eskutik.

Ageri denez ekitaldiz bete-bete egingo da zaigu aurtengo Lurraren Eguna, eta aipatu gabe joan zaizkigu, halere, bertze batzuk, Basauriko dantzarien

erakustaldia, errate baterako.

Gure Txokoa arduratu da, urtero bezalaxe, antolatze lanetaz. Bera-ko eskola guzien, Erausian Euskara Taldea eta Bortzirietako Euskaltegiaren laguntzarekin, eta Herriko Etxearen diru babesarekin.

Lizuniagako Igoera

Gure Txokoak duela hamazazpi urte antolatzen duen Lizuniagako Igoeraren edizio berri bat ospatuko da igande honetan, urriak 26an. Goizeko 10,30etan Eztegarra pilotalekuaren paretik emanen zaio irteera probari, eta laisterkalariek Lizuniagako kaxkoraino 4.900 metroko ibilbidea bete beharko dute.

Gazte, emakume, senior eta be-

teranoen kategoriak bereizi dira, eta kategoriatan bakoitzeko 3 lehendabizikoentzako trofeoak izanen direla erran digute antolatzaileek. Peio Garin gipuzkoarraren 16'13ko eta Maika Ariztegi iturendarraren 20'18ko markak gaintzeagatik ere dirusaria izanen omen da. Laisterketa akaututa lamotenean luntx bat emanen dute.

flash

Helduentzako antzerki tailerra

antolatu du Lamixine Berako Antzerki Taldeak. Kultur Etxean biltzen dira larunbatetan, goizeko 10,30etatik 2etara eta nahi duenak parte har dezake. Informazio gehiago 631293 telefonon (Maria Agirre).

Mintzaldiak

Azaroaren 3an Joxe Ramon Agirre emanen duen "Itsasoari begira" solasaldiarekin idekiko da Bera-ko Euskara Batzordeak antolatu duen «Euskaldunak Abenturan» zikloa. Azaroaren 5ean Esther Murgertza eta Amaia Elosegi etorriko dira Turkiatik Birmaniarat bizikletan egindako bidaiaz solastera. Azaroan bertze 2 mintzaldi ere izanen da entzungai, denak lamotenean, arratsaldeko 7,30etan.

Entrevoces...

izeneko abesbatza kubatarrek emanaldia eskeiniko du urriaren 26an, Lurraren Egunean egitarauaren barnean. Saioa arratsaldeko 7etan hasiko da Kultur Etxean.

Gure Txokoak

bazkide karneta oraindik hartu ez baduzu, bankuan dirua sartu eta justifikantearekin lamotenean agertu, astelehenetan 8etatik 9,30etara.

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturrintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 630 031 • BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

GOZATEGI - JAZONE



Altxate, 19 • 630786 • BERA

**FOTO
GOIKO**

Altxate 26
Tel.-Fax: 630515
BERA

Igantzirako errepidea moldatzea ia 22 milioi pezeta gostako da

Nafarroako Gobernuak gehienez hamar milioi emanen ditu

AITOR AROZENA

21.833.739 pezeta-ko aurrekontua izanen du Lesakatik Igantzirako errepidea moldatzeko lanak, Herriko Etxeak onartutako memoriaren arabera.

Hasiera batean, Igantzi eta Lesakako Herriko Etxeek 35 milioi terditik goitiko aurrekontua zuen txostena prestatu zuten, baina Nafarroako Gobernuak Herrilan sailaren dirulaguntza hamar milioitik ez zela pasatuko jakiterakoan, bertze proiektu xumeagoa egitea erabaki zuten. Bigarrenaren aurrekontua ere 27 milioikoa zen, subentzioarekin konparatuz soberaxko oraindik. Orain onartutako proiektua, beraz, hirugarrena da.

Kontuan hartu behar da, gainera, Herrilan sailaren dirulaguntza jasotzeko lanak abenduaren 10ean baino lehen akautuak egon beharko direla. Beraz, lanak lehenbailehen hasi behar direnez, Herriko Etxeak ahobatez onartu zuen hirugarren proiektu hau. Eraberean, lanak egiteko lehiaketa deialdia plazaratu zuen Boletin Ofizialean. Proposamenak udal bulegoetan aurkezteko epea urriaren 20n akautu zen.



Herriko trikitilariak Katalunian

Azken aldian trikitixa modan dago herrian. Elgorriaga anai-arrebek lortutako Nafarroako txapela Eta Nekane Etxandik, Jasone Mitxeltorena etxalartarrarekin Igantzin lortutako txapela horren erakusgarri. Gure mugetatik kanpo ere ezagutzera ematen ari dira, izan ere, Lesakako eskolako 9 trikitilari, Joseba Iparragirre eta Ander San Josekin batera, Kataluniako Val D'Arango Les herrira joan baitziren, VII. Trovade d'Acordeonistes delakoan parte hartzeri. Taldearekin batera joandako Ior Oteiza eta Xabier Fagoagak, gainera, dantzatu zuten. Bertan bizi den Carlos Pellejeroren eskutik jaso zuten gonbidapena.

Paleta-goma txapelketan aritzeko izen ematea zabalik

Azaroan, Batzoki elkartek Nafarroako Rural Kutxaren laguntzaz antolatutako lehen mailako paleta-goma txapelketa jokatu da estreineko aldiz.

Izena emateko epea urriaren 26an bukatuko da eta bikote bakoitzak izena ematerakoan 3.000 pezeta ordaindu beharko du. Lehen fasean, bosna bikoteko lau

talde sortuko dira, eta talde bakoitzean ligilla modura jokatu da. Talde bakoitzeko bi lehenbiziko bikoteak pasatuko dira final-laurdenetara, hortik aitzinera kanporaketak jokatu direlarik.

Partiduak larunbatero arratsaldean eta igandero goizez jokatu dira udal pilotalekuan. Partehartzaileek aitzineko asteko emaitzen berri izanen dute. Lehenengo urte honetan, lau lehenbiziko sailkatuei txapela eta trofeoak emanen zaizkiea, baina antolatzaileek errandakoaren arabera, «*ondo-ko urteetan diru-sariak ematen saiatuko gara*».

Izen emateko deitu 627522 (Julian) edo 627518 (Begoña) telefonoetara.

flash

❖ Aceralia enpresaren

kontrako salaketa ezarri du Pedro Portu langilearen familiak eta ESK sindikatuak. Pedro Portu lan istripu batean hil zen uztailaren 29an Zalaingo lantegian eta salaketaren arabera, «*enpresak ez du segurtasun araudia betetzen*».

❖ Euskal Herriko bertsolari txapelketan

herriko hiru bertsolari ari dira. Larunbatean Aramaion aritu zen Xabier Silveira eta igande honetan, urriak 26, Iruñeko Gaiarre antzokian arituko dira Estitxu Arozena eta Estitxu Fernandez, arratsaldeko 5etatik aitzinera.

❖ Guardiazibilak

urriaren 14an, HBko Mahai Nazionalaren alde burutzen ari zen manifestazioa desginarazi zuen, armak erakutsiz. Ez da lehenengo aldia eta asteburuetan ere gero eta gehiago agertzen dira ostatueta barna, herrian bertan kontrolak ezarritik, gazteekin modu txarrean sartuz eta herrian barna enkaputxatuak ibiliz. Hau dela eta, zerbait gertatu baino lehen, beharrezko gestioak egitea eskatu zuen HBk azken udal batzarrean.

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESACA

INTXIO JANARIDENDA
Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESACA

BEKO ERROLA
Lore eta landareak
Frain auzoa • 63 78 26
LESACA

ANA Janaridenda
Bittiria, 41 • 63 79 44
LESACA

Martikoren janaritegia eta Orizkiko pirutegiari babesa emanen die udalak

Pilota plaza moldatzeko, bertzalde, bortz milioi erabiliko dira

PELLO APEZETXEA

Nafarroako Gobernuak ukatutako babesa eman nahi dio udalak bi lantegiri, Martikoren janaritegia eta Orizkiko pirutegiari, alegia. Iruñeko baimenik gabe gelditu badira ere, herriko hirigintza arazok direnez, laguntzeko prest agertu da udala, baldin eta Ingurugiro Departamendutik eskatzen zaiena betetzen badute.

Aparkalekua egiteko lekuri ez

Aparkalekua udalaren kezka eta asmoen artean dago aspaldidanik eta horretarako lurra nola eskuratu saiatu egin ditu, orain arte leku haundirik lortu ez izanagatik. Saiatzen segitzeko asmoarekin dabil udala, hale-re.



Pilota plaza moldatzeak bortz milioiko aurrekontua du

Artxiboa

Zugarramurdi eta Baztanerako bidea

Zugarramurdi eta Baztanerako bidea moldatzeko eskariari, hiru herriek igorritako eskariari, ezezkua eman dio Nafarroako Gobernuak. Bide horretan berriki

burututako konponketak Etxalarko udalak ordaindu ditu.

Pilota plaza moldatzeko bortz milioi

Pilota plazaren moldaketa berehala hasiko

da. Bortz milioiko aurrekontua ordaintzeko, 1.600.000 pezeta Nafarroako Gobernuak emanen ditu, 2.400.000 pezeta udal aurrekontuan sartua zegoen eta milioi bat Usategietako enkantetik hartuko da.

Zerga eta kontribuzioak

Heldu den urteko kontribuzioak neurri hauen arabera ordaindu beharko dira:

Hiri kontribuzioa %0,25; landa lurrena %0,31; eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga %2a; Lizentzia fiskalaren zerga %1,10a.

Udazken Kulturala

Azaroaren 7an, ortzirala, arratsaldeko 7,30etan osasunari buruzko solasaldia eskainiko du Julian Bereziartuak. Biharamonean, larunbatean, arratsaldeko 9,30etan, txiste afaria Orioko txiste kontalariekin. Azaroaren 9an, igandea, arratsaldeko 4etan haurrendako musika tailerra gauzatuko du Patxi Hernandok. Udazkeneko lehen hontzak goxatzeko aukera.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 627573 - LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

BEREAU
jatetxea • Hotela
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 62 75 09 - LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

KOXXILA
OSTATUA
Zarandia, 4 - LESAKA

HERRIKO
OSTATUA
Jatetxea
2.900 pta.
Eliza Jantzerak
Ondokiz betetako aza pastela
Nar eta Pikillo saltzan
Ondokiz nahaskia
Etxalarko era zaharrena prestatutako usoa, ga-
leper arrautze eta gaztain puraz lagunduta
Gaztain eta Txokolate Pastela
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

Aranguren
Aroztegi mekanikoa
• Leihoak
• Aurre-markoak
• Eskailerak
• Fabrikanteak gara
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 - 77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

Aurtengo Kultur Egunak heldu den astean burutuko dira

Euskara Batzordeak, Biltokik eta Guraso elkarteak antolatuta

OSKAR TXOPERENA

Euskara Batzordea, Biltoki eta Guraso elkarteak antolatuta, Kultur Egunak burutuko dira aurtun ere. Aski da egitaraua gainetik pixka bat begiratzea, zertan gozaturik bada-goela ikusteko.

Urriaren 29an, asteazkena, 7etan, 'Landa-reak eta frutarbolak' solasaldia eskainiko du Zentroan Jakoba Errekondok.

Urriaren 31n, ortzira, 7,30etan, 'Baserritik mahaierako bidea' izeneko mahaingurua burutuko da leku berean.

Biharamonean, larunbatean, arratsaldeko 5etan, Kollins Clown pailazoaren emanaldia izanen da Zahar Etxean. Gaueko 9etan, txiste afaria Lasarteko txiste kontalariekin, Biltokin.



Aurtun ere izanen da zer ikusi eta ikasi Kultur Egunetan

Arg.: Oskar

Igandean, azaroak 2, egun guzian zehar igantziarren eskulanean erakusketa ikusgai egonen da Zahar Etxean. 4etan haurrentzako joakoak izanen dira eskolako patioan eta 7,30etan opil jatea Biltokin. Aipatu behar da

urriaren 28a bitartean egonen direla salgai ostatu guzietan txiste afarirako txartelak, 1.500 pezetaren truke.

Eskolako haurrak Xorroxin irratan

Irratiak prest eta erne ibili beharko dugu

urriaren 20tik aintzine-ra, eskolako haurrak urteroko irratsaioak eskeintzen izanen baititugu aste guzian zehar, Xorroxin irratiaren eskutik. Irratia piztu, FMko 107.5a hartu eta adi egon beharko dugu egunotan.



Turbo eta Luis Garaia

Luis Garaia oartzuarrarentzat XVIII. Artzai-zakur lehiaketa

Zortzi partehartzaile eta hagitx eguraldi txarrekin jokatu da aurtengo Artzai-zakur lehiaketa, eta, haize eta erauntsi guzien gainetik pasatuz, proba guziaz betetzea lortu zuen bakarra Luis Garaia oartzuarraren Turbo zakurra izan zen. Hurbi-letik segitu zion Xabier Urien abadiñoarrak Bat zakurrarekin. Maila haundia izan da aurtengo proban eta horren adierazgarri lehen probatik bigarrenera epaileek sei zakur pasatu behar izana. Jende gutti xamar beharbada, baina, eguraldia ikusita, ezin bertzerik espero.

ZALAIN
JATEETXEA

EGUNEN MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZATUN S.L.

Eraikuntza eta moldaketak
Despiezea eta makinaria
Mekanika mantenimendua

Igantzikiko Bentak • © 627572 • Faxe: 637313

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

JOSE AGERRE
PINTURA LANAK

- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Gotelé
- Moketa eta zintasol

© 908.979306 • 637957 • IGANTZIKO BENTAK

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 • BERA
© 63 07 63

ARANTZA

Luze joan bada ere, gas zerbitzua paratzeko lanak bukatu dira

Lanak hamabi milioi pezetako aurrekontua izan dute


ELIXABET ETA GARBINE

Luze joan bada ere, dagoeneko gasaren zerbitzua jartzeko lanak bukatu dira. Inguru honetan lehenengo herria izan da Arantza zerbitzu hau martxan paratzen.

Lanak guzira 12 milioi pezeta gosta dira eta bi zisterna haundi ezartzea izan zen arazo gehien eman zuena. Azkenean, trailer haundi batek bere lekuan jarri zituen zisternak.

Orain, Herriko Etxeak etxek etxe bantatu du instalazioak egiteko informazioa. Idatziz honetan, tuboaren instalazioa nola egin, kontadorearen gorabeherak, etab... azaltzen dira, xehetasun guzietan.

Zerbitzu honetan alta emateko, Alcorta Gas (Elizondo) eta Herriko Etxean eskatu behar da.



Donato Larretxea txapeldun

Sei aldiz azpitxapeldun izan ondotik, azkenean lortu du Donato Larretxea arantzarrak Euskal Herriko aizkolari txapelketa bereganatzea. Egia da azken enborrera arte txapela ia galduta zuela, baina Arrospide itto egin zen eta Donatok, azken enborrera arte borrokatuz, garaipena lortu zuen. Euskal Herrikoaren ondotik, igande honetan Nafarroako txapelaren bila joanen da Leitzara. Animo bada, eta ea bertze txapel batekin etxeratzen den.

pelketa honetako lehen partidak urriaren 11n jokatu ziren eta gainerakoak urriaren 18an.

Kultur Astea

Kultur Astearen barnean, ortziralean, urriak 31, drogari buruzko solasaldia izanen da eta honekin lotutako filmi- emanaldia. Arratsean berri, zine emanaldia izanen da eskoletan.

Azaroaren lehen, Baserritarren Eguna ospatuko da. Egun honen an olaketan laguntzaile eta bultzatzaile izanen da Bertizko Turismo Partzuergoa.

Bertzalde, azaroaren 2an, igandea, arratsaldeko 5etatik aitzinera, *Takolo, Pirritx eta Porrotx* pailazoen ikuskizuna izanen da plazan, Euskara Batzordeak udazkenerako prestatutako ekitaldien barnean.

Eraberean, aipatu behar da Repsol enpresak alta bakoitzeko 45.000 pezetako dirulaguntza emanen duela.

Egin mus txapelketa

Azken urteotan bezala, aurten ere Egin egunkariak antolatzen

duen mus txapelketarako zortzi bikotek eman dute izena Ekaitza elkartearen. Ligaxka moduan jokatu den txapel-

ANTZUZELAI S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzuzelak	Txininiak
Angulak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihok	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Margazkiak
Pilareak	

"Abuzadako" Marzioa
Zuhar antzekoa Tzupenari

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ALBERGEA JATETXEA

ATERPE

© 634179
ARANTZA

kixkur

Ileapaindegia

Tel: 63 74 29
Bittiriako Plaza, 3 behe
LESAKA

LABEZAR

© 631076 • **BERA**

TXIRULA

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

ATM S.A.

• Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera

• Enbalaketa elementuak eta flejeak.

• Garraio zintak eta mahaia.

• Mantenu rodiiloak.

Igantzikiko Bentak • ☎ 63 74 11

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264

SUNBILLA


Urrezko ezteiak ospatu zituzten bi bikotek

Beraien familiekin ospatu zuten

JAIONE ETA ALBA

Francisco Larretxea Bereau, jaiotzez aranz-tarra eta Maria Beriz Iparragirre, jaiotzez Iraietia etxekoa, beren Urrezko Ezteiak ospatu zituzten joan den urriaren 4an. Elizkizun batekin eman zioten hasiera egunari eta ondotik bazkaria izan zuten Doneztebeko Ameztia jatetxean, beren familia guztiaekin batera.

Bertze aldetik, Sunbillako Urribil base-rrian sortutako Alejandro Juankorena Agesta eta Carmen Sedano Ibarra donostiarrak urriaren 11n ospatu zuten beraien eguna. Gaur egun Iruñean bizi diren arren, beren txokora etorri dira eta bertan egin zuten ospakizuna, aurrekoak bezala, elizkizunaren ondotik Herriko Etxean bazkaria eginez.



MALERREKA

Emakumezkoen paleta txapelketaren finala azaroaren 1ean

Doneztebeko frontoian jokatuko da

TXEMA ALDABE

Larunbat honetan zortzi, azaroaren lehen burutuko da Baztan-Bidasoako emakumezkoen paleta goma txapelketaren finala.

Txapelketa hau Doneztebeko Erreka elkartaren emakume sai-

lak antolatuta du. Joan den larunbatean jokatu zen lehen finalerdia, eta bigarrena, berriz, larunbat honetan, urriak 25 jokatuko da. Urtero bezala, Malerreka emakumeetaz gain, Baztan eta Bortzirietakoak ere parte hartu dute txapelketa honetan.

Aizkolari eta arpanlariak Donezteben arituko dira azaroaren 14an

Azaroaren 14an, ortzirala, herri kirol jaialdia antolatu du Doneztebeko frontoian Nafarroako Herri Kirol Federazioak, feria eguna izanen dela aprobe-txatuz.

Jaialdi honetan, Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala jokatuko

da, alde batetik.

Bertzalde, Nafarroako bigarren mailako arpana txapelketa eta nesken arpana txapelketa ere burutuko dira.

Doneztebeko udalak, feriei dagokien aurrekontuaren barnean, 200.000 pezetako dirulaguntza eman dio herri kirol jaialdi honi.

ALDABE
TAXIA

DONEZTEBE
© 450687



AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305



Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

ARIN ASEGURUAK

Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

Maisuen etxeko bortz pisu enkantean salduko dira

Proposamenak azaroaren 10a baino lehen egin behar dira

TXEMA ALDABE

Udalak, Maisuen Etxean dauden bortz etxebizitza enkantean salduko ditu. Horretarako, proposamenak udal bulegoetan utzi behar dira azaroaren 10eko eguerdiko ordubiak baino lehen. Pisu bakoitzaren hasierako prezioa 4.510.664 pezetakoa da. Proposamenekin batera, 100.000 pezeta utzi beharko dira behin-behineko fidantza bezala. Behin pisu emandakoan, behin betiko fidantza 200.000 pezetakoa izanen da.

Enkantean parte hartu duten proposamenak, epea akitu eta bortz lan egunen barnean ikusi eta ondotik, adjudikazioa egingen da.

Victoria Gaztelumendi, liburuzain berria

Irailaren 26az geroztik Victoria Gaztelumendi lesakarra da Doneztebeko udal liburutegiaren liburuzain berria. Oraingoan ere, gizarie garrantzia gisako



Zine denboraldia azaroaren 1ean hasiko da

Azaroaren 1ean, larunbata, gaueko 10,30etan 'Bean' pelikula eskainiz hasiera emanen zaio aurtengo zine denboraldiari herriko zineman. Biharamonean ere, filme bera ikusteko aukera izanen da, arratsaldeko 5etan eta 8etan. Denetara hamar pelikula botako dira, asteburu batean bai eta bertzean ez, eta operadorea, joan den urtean bezala, Daniel Belarra izanen da.

kontrata egin zaio, hau da, udalak INEMek ordaintzen dionaren eta

berez dagokion soldataren arteko diferentzia ordainduko dio.

Neguko ordutegian, astelehenetik ortzirale-ra, arratsaldeko 5etatik 8etara arituko da eta neguko ordutegian, uztailaren 1etik irailaren 30era, goizeko 10etatik 1etara.

Bertzalde, Iruñeko Aitzinako Liburuaren Ferian, udal liburutegirako liburuak erosi ziren, horretarako 75.000 pezeta ordainduz.

San Miguel ikastetxeko garbiketa lanak

San Miguel ikastetxeko garbiketa lanak egitearen truke, hilabetean 683.825 pezeta kobratuko ditu Juan Jose Urtxulategik. Joan den urtean baino 110.434 pezeta gehiago jasoko ditu, Lehen Hezkuntzako zentroaz gain, DBHkoa ere garbitu beharko baitu aurtent.

Bertzalde, ikastetxearen aldagela eta gimnasioaren moldaketa lanak Juan Eugenio San Miguelek egin ditu 2.892.750 pezetatan. Zenbait ate eta zola ere berritu dira.

flash

Superbat Donezteben

Euskal Telebistako Superbat saioa grabatzera etorriko dira Doneztebera. Grabazio eta bertze gastuetarako 100.000 pezeta ordainduko dituzte udalak.

Administrari laguntzaile

lanposturako lehia-keta deialdia luzatuko du Udalak. Euskarari dagokionez, Hizkuntz Eskolako 4. maila izan beharko du langileak eta lanpostu finkoa izanen da.

Dirulaguntza Nafarroa Oinezentzat

Tafallako Garces de los Fayos ikastolak 50.000 pezetako dirulaguntza jasoko du Doneztebeko udaletik, Nafarroa Oinezentzat antolatetarako.

Mugitz inguruan

dauden 89 haritz amerikanoren oihan aprobetxamendua Maria Teresa Santestebaneri adjudikatu dio udalak, 228.807 pezetaren truke. Fidantza gisara 23.631 pezeta utzi beharko ditu.



zapata
&
esagarriak

- Paredes
- Liberto
- Braco
- Kickers

Merkatarien karrika, 21 - DONEZTEBE
© 948 45 18 01



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

ETXANDI

TXOKO

jatetxea

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91

MALEERREKA

Elgorriagako ur-hornidura eta saneamendu sareak estreinatu dira

91 milioi pezeta pasatuak gosta da lan hau egitea

TTIPI-TTAPA

Urriaren 4ean inauguratu ziren ofizialki Elgorriago ur-hornidura eta saneamendu sare berriak. Ekitaldian, Jose Miguel Galarregi alkatea eta Herriko Etxeko zinegotziekin batera, Rafael Gurrea, Nafarroako Gobernuako presidente ordeoa eta Leku Administrazio departamentuko kontseilaria eta Jose Cruz Perez Lapazaran, UPNko senadorea izan ziren, bertze zenbait sailetako zuzendari eta Jose Ignacio Zabala, Doneztebeko alkateordearekin batera. Txistulati eta trikitilarien doinuak ere aditu ahal izan ziren inaugurazio ekitaldian.

Lan hauek burutzeko 91,3 milioi pezetako inbertsioa egin da, horietatik 60,7 Nafarroako Gobernuak paratuak. Lanak *Valeriano Santesteban, S.L.* enpresak egin ditu. Edateko ur-hornidura eta saneamendu sareak erabat berritu dira, eta herritik pasatzen diren errekatara isuriak eza-



Rafael Gurrea lehendakariordea eta Jose Miguel Galarregi alkatea, inaugurazio ekitaldian zinta moztetako momentuan

Argazkia: Ondikol

batu dira. Gainera, karriketako zola altxatu behar zela eta, bidena-barkoan, gasaren kanalizazioa, elektrizitatea eta kable bidezko telebistarako instalazio lanak egin dira, beharra suertatzen denerako. Lan hauen ondotik zola ere berritu egin da.

Elgorriagara etorriak zirela aprobetxatuz, Juan Lizasoainek presatutako aitzinako erlojuen erakusketa zabaldu zuten Kultur Etxean.

Baztan-Bidasoako euskaltzaleen topaketak azken txanpan sartu dira

Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen topaketak azken txanpan sartuak dira. Bilerak Doneztebeko Juansenea etxean burutzen ari dira.

Urriaren 23an, ortzeguna, "*Eskualdeko herri ekimena*" mahaingurua burutuko da, talde ezberdinekin.

Urriaren 28an, astearte, "*Turismoak euskarari zer? Euskarak*

turismoari zer?" solasaldia eskainiko du Kike Amonarrizek.

Urriaren 30ean, ortzeguna, "*Bidasoako hizkerak eta euskara batua*" gaiak arituko da Paxkual Rekalde.

Azaroaren 4an, azkenik, "*Eskualdeko hizkuntz egoera orokorra eta horren gaineko gogoeta*" egingen du Rosa Ramosek.

Datorren ortziralean herritarrentzat afaria izanen da Iturengo Altxunea erretegi

IBAN ISASI

Urriaren 31n, ortziralean, Iturengo herritarrentzat afaria antolatua izan da Altxunea erretegi. Ondotik, afalondoko giroa goxatzeko dantzaldia izanen da, Christian akordeolaria eta bere lagunekin. Afariaren prezioa 2.200 pezetakoa izanen da eta izena eman nahi izanez gero, Altxunea erretegi deitu edo joan behar da lehenbailehen.

Egin mus txapelketa

Euskal Herria osoan zehar Egin egunkariak antolatzen duen mus txapelketa Aurtizko ostatuan egingen da. Dena den, oraindik ordua eta eguna jarri gabe daude, beraz, animatu eta zure izena emateko abudo ibili. Irabazle suertatzen direnak, Nafarroako finalean parte hartu ahal izanen dute.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilketak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iraxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 58 09 71 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO




LESACA

Feria eta merkatuen jatorria

• Lander SANTAMARIA •

Merkatu eta feriek, duela urte batzuk arte ezagutzen ziren bezala, gero eta bizitza motelagoa dute. Gainbehera horren oinarria, gizartearen egitura ekonomikoetan burutzen ari diren aldaketetan dago. Nafarroa milaka urtez nekazaritza eta abelzaintzako ekonomia batean sustraitu da, Eneolitiko garaitik XX. mendera arte.



coco's

Bakero eta Sport arropa

Santiago 55 • ☎ 581149 • ELIZONDO

Haurren arropadenda
Lxiki's
Ostik 18 tailara bitarte
Taio berriendako mantak, zakuak, etab...
Jaime Urrutia 21 • ☎ 580716 • ELIZONDO

Negurako erosketak egiteko aprobetxatzen da, maiz, Feria Eguna.

Arg.: ONDIKOL

Hamar urte baino gehiago zure zerbitzuan

Zergalan Asesoria, S.L.

Akullegi, 3 - 2.A

☎ 580 335

ELIZONDO

Ordutegia: Astelehenetik Ortziralera, egunero goizeko 9etatik 13,30ak arte.

- ☐ Auditoriak
- ☐ Zerga Aholkularitza
 - ❖ Errenta (Aitorpenak, moduloak, e.a...)
 - ❖ Elkarte gaineko Zerga
- ☐ Ekonomia Aholkularitza
 - ❖ Bideragarritasun ikerketak
 - ❖ Koste ikerketak
- ☐ Kontabilitateak
- ☐ Nominak, Aseguro Sozialak
- ☐ BEZ (IVA)

ferreteria Quevedo

• Elektrizitatea • Zerraildegia • Erremintak
• Joareak • Haziak •

Paintas
Procolor

Xyladecor
xylazel



Babesa eta
edertasuna
guziaren gaintetik



Santiago 21 eta 31 • 580234 • Faxe: 581210 • ELIZONDO



**HOTEL
SASKAITZ**

M^a Azpilkueta karrika, 10
Tfnoa./Faxe (948) 58 04 88 - 58 06 15
31700 Elizondo

Nafarroako Erreinuak bertze herrialdeekin zituen harreman komertzialen barnean, lehentasuneko lekua zuten feria eta merkatuek, garai hartan barneko nahiz kanpo komertzioaren bide arruntena ziren. Nafarroako mendialdeko eta erdialdeko adintuek, herri ttiki eta baserri ugari dauden lekuetakoak, alegia, badakite bi instituzio hauek -feria eta merkatuek- etxe-ko ekonomian izan zuten eraginaren berri.


Eguneroko lanen ondotik, soro eta ikuiluetan lortutako produktuek (azienda ttiki, arraultze, barazki, fruta eta lekaleak nagusiki) irtenbide naturala zuten asteroko merkatuetan, bertan azientak, erremintak, ontziak eta ekipamendua erosten baitziren.

Feria, asteroko edo hamabostero-ko merkatuak baino ospetsu eta handiagoak ziren. Abeltzainak, tratanteak eta kinkilariak, Nafarroako eta Nafarroatik kanpoko jendeak ferialekuan biltzen ziren, azienda erreldo akitzen inguruan.

Baina salerosketa komertzialetaz gain, feria eta merkatuek bazuten, gure gazteek ezagutzeko aukerarik ez dutelako izan, baloratu ezin dezaketen zerbait: gizakien arteko hartuemanen berotasuna eta goxotasuna, bertze herrietako aurpegi ezagunak, lagunak edo senitartekoak topatzea, elkarrekin solasteko edo baita seme-alaben etzeiak prestatzeko ere.

Artzainen bilkurak zona estrategikoetan

Gure sistema komertzialaren jatorria arras aitzinakoa da. Duela mendeak, ekonomia gehien bat abeltzaintzan oinarritzen zenean, zona estrategikoetan artzainen bilkurak egiten ziren, beraien jeneroak elkartrukatzeko aitzinetik hitz emanak, seguraski.



Informazio zehatza eta zuzena ematen duen toponimiaren bidez, badakigu zona estrategiko horiek leku ezberdinetan izan bazeudela.

Gipuzkoako Aralarren, adibidez, Elkomutz haitzaren magalean, Igaratzako belagiak eta Perileku ordokia zabaltzen dira, Harri-Aroan izan zuten garrantziaren lekuko diren trikuharriez josiak. Inguru honetan uztaileen 22an egiten zen urteroko feria, mende honetako lehen hamarkadetararte iraun zuen.

Gisako kasua dugu Aezkoatik



ALBAITARI ZERBITZUA

MERKATARITZA: • Botika • Osagarri mineralak • Bildots eta aretxeendako esnea • Xaboi eta desinfektatzaileak • Materiala • Hazi • Nitrogenoa • MVE Garrafak

AITA DONOSTIA 7 • TFNOA: 580980 • FAXA: 452111 • ELIZONDO

**VIDEO
CLUB
BAZTAN**

**Feria onak
pasa itzazue**

Jaime Urrutia 38
ELIZONDO



Iparralderako bidean, Idopilen barna. Azpegiko muinoaren azpian, eskualdeko belagi onenetan, trikuharri, harrispil eta tumuluez betetako zabalgun bat dago, antigoalean Pirinioen bi aldetako artzainek beraien feriak egiteko erabiltzen zutena.

Otsagiko Pirinioan ere gisako zeribait errepikatzen da. 1712. urtera arte, Iruñetik Uxuerako bidearen eta Oibarretik Tafallarako galtzada errotarraren arteko bidegurutzean, desagertutako San Ginesen monastergiaren ondoan, egiten zenazienda fe-

riak jatorri arras zaharrekoa izan daiteke.

Toponimikak erakusten digunari buzuko adibide garbia Elizondon bertan daukagu. Menditik eskola konzentraziara Baztan ikastolara eta Frantziskotarren kolegiara doan parajearen urbanizazioaren ondorioz, eremu hori Merkatuzelaia deitzen dela dakigu. Erranahia bista-

Saltzaileak eta erosleak eskua elkarri luzatzen diote, erabateko konpromezua ezarriz.

Arg.: ONDIKOL

SANSIÑENA GARAGEA

Tfnoa: 580 406 • ELIZONDO



CITRÖEN Zerbitzu Ofiziala

- Mekanika tailerra
- Kotxe konponketa
- Bigarren eskuko kotxeak



Zerbitzu Ofiziala

- Agria eta Dehutz Farh traktoreak
- Erabilitako nekazal tresneria



BAZTAN OPTIKA

(Helbide berria)

Santiago, 33 (Baztan Ostaturaren altzinean) • ELIZONDO

BETAURREKOAK + GRADUATUTAKO LENTEAK
EMAKUME, GIZONEZKO EDO HAURRENTZAT

7.500 pta. bertzerik ez

Eskaintza baliagarria azaroaren 30a arte

ORDUTEGIA:

Astearte eta ortzirai goizetan 10etatik 1,30etara

... ETA HEMENDIK AITZIN

ASTEAZKEN ARRATSALEDAN, 5etatik 7,30etara.



VIRGILIO OINETAKOAK

1922an fundatutako etxea

☎ 58 02 09 - 58 02 79

Santiago 32 • **ELIZONDO**

Larunbata egun osoan irekita!





Feria eta merkatuak aldatu dira: Saltzaileak profesionalizatu dira, feriante edo saltzaile ibiltariei dagokienez, behinik behin. Herri batean zein bertzean, berberak topatzen dituzu, guti goiti beheiti.

Arg.: ONDIKOL

koa dela dirudi. Seguraski, orain Merkatu plaza bezala ezagutzen duguna eraiki baino aunitzez lehenago, Elizondoko merkatu eta feriak bertan egiten ziren.

Eta, akaso, merkatu eta feriekin zerikusirik ez badu ere,

Bagorditik Braulio Iriarte karrakara ateratzen den bidea –eta hau ongi daki Mariano Izetak– Mandoiturri deitzen da, eta ez Menditurri, garai batean, inguru horretan mandoendako iturri bat egon zitekeelako.

Historiarekin segituz, mendeak pasatzen dira. Nafarroako Erregeek, bertze gauzen artean, agintari erromatarren eskutik *Jus Nundinarum* eskuratu zuten, merkatuak ospatzeko baimenak emateko eskubidea. XI. mende

ELIZALDE

ESTANKOA

Jaime Urrutia • ☎ 452410 - ELIZONDO

NAFARPRESS

LIBURUDENDA

Prentsa, aldizkariak, eskola eta bulego materiala

Jaime Urrutia 43 • ☎ 580902 • ELIZONDO

IPARLA KIROLAK

- Kirolak orokorki
- Ekipamenduak

Santiago 51
☎ 58 05 85
ELIZONDO



FUTBOLIN OSTATUA

Ongi pasa Ferietan

Jaime Urrutia 10 • ELIZONDO • ☎ 452366

La Asturiana

Ostatua • Jatetxea

- pintxoak • bokadiloak •
- gosariak • plater konbinatuak •

Menua edo karta

Feria onak pasa!

Santiago 51 • ☎ 58 04 63 • ELIZONDO



bukaera arte, merkatu egitura, aitzinako erara egiten zela iduri du.

Nafarroan ospatutako feria eta merkatuen gehiengo zabalak, gaur egun mantentzen direnak eta desagertutako aunitz,

1084. urtearen ondokoak dira. Urte horretan egiazko iraultza sozio-ekonomikoa gertatu zen, Lizarra, Zangotza, Gares, Biana, Uharte-Arakil edo Etxarri-Aranaz bezalako herri garrantzitsuen sorrerarekin, merkata-

ri frankoen etorrerarekin, eta birpopulatzeko foruen eta "Buenas Villas" tituluen kontzesioarekin.

Ospatzeko pribilegioa erregeek bakarrik eman zezakaten. Zergak ez ordaintzeko eskubi-

Aziendak eta baserrietako produktuak, errelista haundikoak izaten segitzen badute ere, kontsumorako produktu pilaren aitzinean lekua uzten joan dira.

Arg.: ONDIKOL

SOBRINO OSTATUA

Pintxotan eta bokadilotan espezializatuak
Plater konbinatuak
Feriak ongi pasatu!

Santiago z/g • ☎ 580823 • ELIZONDO

MALKORRA GOZOTEGIA

Urrekin egina • Turroi eta mazapanak
Etxean egindako gozoetan espezialduak

Jaime Urrutia • ☎ 580061 • ELIZONDO



CRISTALERIA VELATE

- 'Climalit' kristal bikoitza
- Barnekaldeen dekorazioa
- Ispilu muralak

Pedro Axular 1 • ☎ 580825 • ELIZONDO



FOTO ZALDUA

ARTE CUADRO

Laminak, oleoak, hiru dimentsioko laminak, kristalak, okumen txapak eta passepartouts salgai

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA dugu, baita moldura eta argazki marko aukera zabala ere

LABAIEN

OSTATUA

Bokadilloak,
pintxoak eta plater
konbinatuak

ematen dira

Santiago 47 • ☎ 580338
ELIZONDO

dea eurek soilik ematen ahal zuten eta bertako nahiz estranjeriako jendearen joan-etorriak bermatu behar zuten, «Kristauak, juduak edo mairuak zirela, gizon edo emaztekiak, joan, egon edo heldu zirela euren xokoetara libre, onik eta hain segur beren ontasuna, abere, joan-edateko eta bertze zernahirekin, seguru eta libre, eta ez daitezela preso hartuak izan, giltzaperatuak edo urkatuak ez eurak eta ezta eta ezta heben zaldi eta ontasunak ere merkatu- ra joan etorria egiterakoan».

Ferien eskubidea Erregeen esku

Sarritan, feria eta merkatuak ospatzeko pribilegioa, Gortetan esertzeko eskubidearen baitan zegoen. Aitzinekoekin batera, XII. mendean feria eta merkatua ospatzen zuten Iruñeko Nabarrerria eta San Cerninen, Lizarran, Elon (Monreal), Orreagako Burgoan (Auritz), Urantzian (Los Arcos) -1175ean Antso Azkarrak eman- eta, seguraski, Larrasoñan.


XIII. mendean merkatuak ematen zaizkie Lizarrari (1236), Agilarri asteartetan (1269), Tiebasi astelehenetan (1283), Lizoain-Urrotzi asteazkenetan (1286) eta San Migeleko feriak Lizarrari (1251). Hurrengo mendean, larunbateroko feria eta

San Juan eta San Migeletan zortzi eguneko bi feria emanen zaio Etxarri-Aranaz sortu berrirari (1312).

Carlos III. errege zela feria ospatzeko baimen ugari eman ziren. Azkoiene apirilaren 27an hasiz (1389), Tuterari San Juanetan (1390), Zangotzari hamar egun Pentekoste aitzineko ortzegunetik hasita (1399), Korellari iraileko sei lehenengo egunetan (1417), eta Artaxonan ortzeguneroko merkatua (1421) eta Tafallan asteartero (1423).

Ondoren, erregeek feria egiteko baimenak eman zieten Torralbari, San Bartolomen hasita zazpi egunekoak (1456), Uharte-Arakili hamabi egunekoak (1461), Lesakari, hamabortz eguneko bi feria (1499), Garesi, uztailaren 29tik abuztuaren 11ra (1498) eta Larragari (1518), Tafallakoa zabalduz (1437). Merkatuak egiteko baimena, berriz, Agoitzek hilabete bakoitzeko ortzegun batean (1429), Zangotzak, lehenik hamabostero (1430) eta gero as- tero, Juan de Labriti esker, Uharte-Arakil asteazkenetan (1461), Lesakak hamabostero (ferietaz gain, 1499an) eta Lerinek, astelehenetan (1517) jaso zuten.

Horietaz gain, «Buenas Villas» bezala ezagunak ziren gehienak ere eskubidea zuten,



hara nola, Erriberri, Irunberri, Alesbes, Mendigorria, Kaseda, Lakuntza, Esprontzedo, Balterra, Doneztebe, Goizueta, Etxalar,

Baserritarrek beraien merkantzia saltzera jausten ziren. Aretzeen prezioaz eztabaidatu edo hazitarako azienda on baten jabearekin solasten zen, gero etxeko aziendekin gurutzatzeko.

Arg.: ONDIKOL

Iris Floristeria

✕ Landare zentroak

✕ Krisantemoak, azaleak, ziklamenak...

✕ Lore xortak eta landareak loretan kanposanturako



DOMISAINDURAKO ESKEINTZA BEREZIA

Jaime Urrutia 21 • © 58 10 53 • ELIZONDO

Bidegain Arraindegia

Feria onak pasa

Jaime Urrutia 22 • ☎ 58 04 98 - ELIZONDO

ZUNZARREN

ARTEKARITZA

⇒ Aseguruak, Autoen Matrikulazioak, Gida Baimenen Berritzeak eta Garraiolariendako Ikastaroak

BIDAI AGENTZIA

AUTO-ESKOLA

© 45 22 93 • AMAIUR GAZTELUA 2 • 31700 ELIZONDO

MATE

Lentzeria

AUKERA ZABALA
PREZIO ETA
MARKETAN

Jaime Urrutia 43
ELIZONDO
Tfnoa: 452436



Aibar, Atarrabia, Zuñiga, Kaskante, Zentroniko, Miranda, Argetas eta Milagro, baita Asiain bezalako herri tti-
kiek ere.

Gure eskualdean, ezagunak direnetaz gain, feria arras interesgarriak izan ziren Amaiurren —ospe dexente izan zuen zaldiazienda feria— eta Sunbilla —zaldi-azienda eta ardi-azienda—, biak, zoritxarrez, desagertuak gaur egun.

tuak gaur egun.

Kajoi artean arakatuz topatutako 1973ko paper batek dienez, urte horretan feria eta merkatuak ospatzen ziren Tafalla, Tuter, Elizondo, Auritz, Lodosa, Lizarra, Otsagi, Ilunberri, Iruña, Abarzuza, Zangotza, Uharte, Martzilla, Altsasu. Lizoain-Urrotz, Doneztebe eta Lesakan. Baina dagoeneko zenbait herrietan fe-

ria horiek galdu direla uste dut.

«Astelenian Tolosan, asteartean Azpeitian, asteazkenian Billafrankan (Ordizian), ostegunian Hernanin, ostiralan Legazpin, larunbatean Zumarragan, igandean paseatzen naiz andragiak Donostin». Bertso hauekin erakusten zuen Txirrita bertsolari hernaniarrak garai bateko gipuzkoarren bizimodua. Eta gipuzkoarrak erraterakoan, Baztan, Malerreka, Leitzaldea eta Bortzirietako nafarren bizimodua ere erraten da.

Feriak, gizarte bilgunerik onenak

Izan ere, garai batean feria eta merkatuak gizarte-bilgune onenak ziren. Baserritar eta artzainak berain merkantzia saltzera eta bizilagun eta lagunekin elkartzera jausten ziren. Aretzen prezioaz eztabaidatzen zuten edo hazitarako azienda on baten jabearekin solastetzen, gero etxeko aziendekin gurutzatzeko. Eta noski, aposturen batean parte hartzen zuten, edo pilota partiduren edo bertso saioen batera agertzen ziren. Gazteentzat, gainera, lagun berriak eta senar edo andre gaiak bilatzeko aukera ona zen.

Feria eta merkatuak aldatu dira, oraindik esku emate edo elkartrukearen zerbait mantentzen badute ere. Saltzaileak profesionalizatu dira, feriante edo saltzaile ibiltariei dagokienez, behinipein. Herri batean zein bertzean, berberak topatzen dituzu, guti goiti beheiti. Eta modernizatu dira, denak te-

lefono mugikorrarekin, azken ferietan ikusten dugunez.

Baztan-Bidasoa aldean, aziendak eta baserrietako produktuak, erreista haundikoak izaten segitzen badute ere, kontsumorako produktu pilaren aitzinean lekua uzten joan dira: zapatak, arropa, erramintak, diska, kasetteak, etxerako tresnak... Orain denetik saltzen da, denerako erosleak daudelako.

Halere, feria eta merkatuen ospakizuna, etxetik ateratzeko pisuzko arrazoiak izan da beti. Etxekoandreak ez du eragozpenik izaten, feriara joatea, nola bait lanera joatea baita, saltzera, eroztera edo enteratzera, denetik behar baita.

Nere ustez, hemen Baztanen ikasteko aunitz dugu. Zenbait espezia, barazki ederren bat, ardi-gazta on bat edo etxekoandre edo nekazari batekin izandako solasaldia aski eta sobera dira egun honetaz gozatzeko. Gipuzkoa, Bizkaia edo Iparraldean alde ederra ateratzen digute honetan.

Gipuzkoan hilabeteroko lau feria daude eta asteko 24 merkatu. Hilabete lehen astearrean Urretxun, hirugarren asteazkenean Azpeitian, azken ortzegunean Zestoan eta azken larunbatean Elgoibarren. Astelehena, merkatu eguna da Lazkao eta Tolosan; asteartea, Andoain, Azpeitia, Beasain eta Ormaiztegin; Ordiziako merkatu famatua asteazkenean ospatzen da; ortzegunean, Elgoibar, Hernani, Orio, Urretxu, Zegama eta Zumaian txanda da; ortziraletan Anoeta, Arrasate, Getaria, Ibarra, Legazpia eta Mutriku. Eta, az-

ELKAR

AUTO ESKOLA

• Tfnoa: 580077 ELIZONDO •

Gidatzeko karneta ateratzea, orain errexago

• Turbo-Test sistema ordenagailuekin

**Iraileko probetan
% 92ak Teorika gainditua
Errexago, merkeago eta
lehenengo dokumentazioarekin**

Deitu konpromisorik gabe

KASINO OSTATUA

Feria onak pasa!

Jaime Urrutia 10 • ELIZONDO

FERRETERIA BAZTAN

Pintura • Aroztegiko gauzak
Kristalak • Sukalde tresneria • Opariak

**Erakusketa berritu eta haundiagoa
(Hiru solairu)**

Jaime Urrutia 20 • © 580423 • ELIZONDO

BETEGI GOKOTEGIA

Etxean egindako gozoki klase guztiak:

- FERIETAKO TURROIAK
- Euskal Pastela eta pastak
- Txokolatea urraikin egina
- Txokolatea almendrekin egina

FERIA ZORIONTSUAK IZAN

Santiago 43 • © 452186 • ELIZONDO

Baztango likore naturalak

ORDOKI

Herriko Egosberak

Patxaka Patxarana Fetjoa Erregaliza Kamamila anisekin Menta Tea

BAZTAN

ARIZKUN-NAFARROA

© 453410 LICORES BAZTAN SAT 582 NA Faxes: 453378

MARTIN ARRAZ- TOA

Bizikleta, Moto eta
motozerra salmenta
STHIL motozerra
eta desbrozadora
agencia

Santiago



B. ALMANDOZ OINETAKOAK

**Oinetakoen salmenta
eta konponketa**

Santiago karrika 47 • ELIZONDO

BIL DIE LAU - BIDE

Traktore konponketa
eta salmenta

© 453 425 • ARIZKUN

**MARSHALL PERKINSON
banatzaileak**

kenik, Andoain, Azkoitia, Oñati, Tolosa eta Zumarragan larunbatero izaten dute merkatua. Besta egunetan ez direla ospatzen gogoratzea komeni da.

Ezpeletan, Iparraldeko neguko zaldi feria haundia urtarreko hondar as- tean ospatzen da. Pottoka Feria honek, berekin omen dakar hotza, behelainoa, euria, elurra eta haizea.

Tratanteak, desagertzeko arriskuan dagoen espeziea, beraien blusa beltz eta makilarekin alde batetik bertzero ibiltzen dira, saldutako aziendak markatuz. Bertze batzuk behorren isatsari korapiloa egiten dioten bitartean, saltzaileak eta erosleak elkarri eskua luzatzen diote, erabateko konpromezua ezarritik. Oraindik hor dagoen Euskal Herria da, eskura, ... baina ez dakigu zenbat denbora iraunen duen.

Mugaz alde honetako nekazari guz- ziek dakite astelehenetan merkatua dagoela Garazin, asteartetan Ezpeletan, Heletako Santa Catalina feria, Iparraldeko zaldi eta behi azienda fe- ria garrantzitsuen delak. Eta bitxia da, Heleta ezagutuz gero, herrian eliza tti- ki bat bere hilerriarekin, karrika bat, frontoia plaza haundi baten erdian eta herrigunear hamabortz bat etxe bert- zerik ez daudela ikusten baitugu. Baina

abeltzainak (saltzaile nahiz erosle) Frantziako eskualde gordeenetatik ai- legatzen dira, baita Italiatik ere.

Eta Iparraldekoek badakite lehen Bazko ortziraletan azienda feria dago- ela Elizondon, baita San Lukas egu- naren ondoko asteko ortziraletan, urrian, udazkeneko feria. Eta badakite, nahiz eta eurek feria eta merkatuetan tra- tante eta nekazarien blusa eta makila bezain tipikoa egin den argitalpen kla- sikoa ez duten erosten eta irakurtzen: *Egutegi Zaragozarra*. Elizondoko ferien kasuan, bederen, ez du asmatzen. ■

S. SEMPER

Makineria

Ergoien Auzoa
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)
Tel. eta Faxe: (943) 49 06 19

BLIZZARD Seriea
3 modelo
65, 89 eta 95 CV



GLOBUS Seriea
70 CV, kabina edo
kabinarik gabe



Landini


80 Seriea
95 CV, kabina edo
kabinarik gabe



**Birbaloratu zure etxea,
egizu goxoagoa!**



Betikon
kolore ugari ditugu
baita egur koloreak
ere (haritz, kaoba,
pinua, etabar) eta
edozein etxe estilora
egokitzun direnak



Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnoa. eta faxe: (948) 45 32 59

4 arrazoi on PVC jartzeko



Isolamendua
Kalekalkiaz
% 35a arretan
abai duen




Mantenu
erraza
Ura eta zuloa
zati da, ez da
pintura beharrik



Hermetiko-
tasuna
Ura eta haizetik
habeteketa, baita
sometatik ere.



Iraunkor-
tasuna
Dendak ez da
alderatzen



**Deitu eta estudioa eginen
dizugu inolako kosterik gabe,
obra eta berrikuntza lanak
kontuan hartuz.**

Betiko

ARKUPE

Goxotegi kafetegia

IRURITA ☎ 452021
ELIZONDO ☎ 452393

☞ **Tarta bereziak** ☞ ☞ ☞
☞ **Etxeko izozkiak** ☞ ☞ ☞

Feria alaiak opa dizkizuegu



Purina

etor zaitez ikustera

- Ardi, ahuntz, behi, etabarren parasitoak hiltzeko pentsu bereziak
- Pentsu konpuestoak, luzerna eta zerealak
- Hegaztiak
- Laguntza animaliendako janaria
- Kaiola eta tolbak

Aparan Pol. 2, 3 • ☎ 451845 • DONEZTEBE



IRIBERRI

TINTORERIA

Garbiketak Idorrean

- **Alfonbrak**
- **Tapizak**
- **Arropak...**

Jaime Urrutia 4 • ☎ 580356 • ELIZONDO

Soik

emakumeen arropa denda

Bi piezako puntuzko konjuntok
Taila haundiko galtzak
Txaketak eta parkak

Santiago 33 • ELIZONDO

Natura Etxea

- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia kontsulta
- Pisu-terapia
- Illearen tratamenduak

**BELARDENDA ETA
DIETETIKA**

Feria onak pasa!!

Iturri Ederra • Tfnoa. 58 02 03 • 31700 ELIZONDO



RENAULT
Kontzesionarioa

PEDRO GARMENDIA, S.A.

FRANTZIARAKO ERREP.
TELEFONOAK:
(948) 58 04 31 - 58 04 36
FAX: (948) 58 09 73
ELIZONDO



AUTOZERBITZU

ESTAZIOA

PEDRO GARMENDIA, S.A.

• Gasolina • Gasoil • Super • Karburantea • Engraseak • Garbiketak • Olioak • Grasa • Neumarikoak • Akzesorioak •

Tfnoa: 58 03 09 - ELIZONDO

BAZTAN • MALERREKA • BORTZIRIETAKO SEAT ZERBITZU OFIZIALA



MEKANIKA

ELEKTRIZITATEA

GASEN AZTERTZAILEA

ITVrako PRESTAKUNTZA

DIREKZIOAREN ZUZENKETA

ORDENADORE BIDEZ

Tallerrak:
ELIZONDOKO
sarreran
Telefonoa:
58 02 25

SEAT

DATUCELAY

BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia



- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, Luis Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54 km. • Tfnoa: 45 23 74 • IRURITA



SAME

- **Modelo berriak:**
 - Silver 80, 90 eta 100 cv, inbertsore hidraulikoarekin
 - Dorado 60 eta 70 cv

**Oraindik seguroagoak,
oraindik erosoagoak**

IRTEERA-ESKEINTZA BEREZIAK



**Ikusi eta informa zaitez,
konpromezurik gabe:**



AROZ-BERRI, S.A.
121-B errep., 54. km • IRURITA
Tfnoak: 948-581021 / 580258

**Nafarroa eta
Gipuzkoarako
banatzailea**

ZUBIETA

Euskararen Eguna ospatuko da larunbatean

Joaldunak, herri bazkaria, dantza eta musika izanen da

AINHOA MUTUBERRIA

Datorren asteburu hau izugarrizkoa da gero! Ostiralean Elizondoko feriak eta larunbatean Euskararen Eguna Zubietan. Zerghegiog behar dugu? Ez dugu aspertzeko denborarik ere izanen.

Zubietan ospatuko den Euskararen Eguna, bueltaka-bueltaka, azkenean hilaren 25ean

ospatzea erabaki da. Kartelak ere badira, noizpaitere karteletok argazkia aldatu da, (udako bestetako zaldiko hura ikusiegia baitzegoen) eta jakina, jaia gure herrian denez, Joaldunen argazkia hemengoan izan behar.

EKITALDIK HASTEKO, JOALDUNAK

Eguneko aktibitatei, hain zuzen, joaldu-



Eguerdian joaldunek hasiera emanen diote Euskararen Egunari

Artxiboa

nek emanen diete hasiera, eguerdiko 12etan. Ondotik herri kirolak izanen dira. 2,30etan bazkaria estalpean, Mikel Mendizabal eta

Zeberio bertsolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitilariekin. Arratsaldeko 8etan Zubietako dantza luzea egingen da. Hau akitu ondotik, be-

rriz ere trikitilariak ari tuko dira afaltzeko ordura arte eta, azkenik, dantzaldia *Triki Trake* trikitixa taldearekin. Ongi pasa!



Talleres Eder

Citröen agente ofizial berria

Donezteben



Zatuz **CITROËN XSARA BERRIA** ezagutzera gure erakusketara. Eta baita turismo eta auto industrialen gama osoa ere.

Citroën-ek Agente Ofizial berria izendatu du Donezteben.

Etiket hurbil Citroën gama osoa ikusgai edukitzeko, eta aldiberean, abantaila eta zerbitzu guztiak aprobetxatzeko:

- Grua egun osoan.
- Mekanika-elektrozitatea, txapa-pintura edozein autorentzat.
- Autoak errentan, 1.275 pta/eguneko.
- Eurocasi3n ibilgailuak guttienez urte bateko **garantiarekin**.

Gure garantiarekin

Cirmauto
Zaragoza Etorb.
Tfnos.: 24 93 00. Iruña



GOIZUETA

HBko Mahai Nazionalaren kontrako epaiketari aurre egin zaio herrian

Hainbat elkartek babesa eman diote adierazpen askatasunaren aldeko manifestuari

ESTEBAN AROZENA

Madrilgo Auzitegi Gorenean hilaren 13an hasitako Herri Batasunako Manahi Nazionalaren aurkako epaiketa ez zaie ustegabeen pasatu herritarrei. Oroitarazi, behar bada, ETA-ren bake proposamen baten berri emateagatik epaitzen dituztela 23 politikari abertzaleak.

HAINBAT ELKARTEREN BABESA JASO DU MANIFESTUAK

Esan behar da elkartasun mugimendu handia sortu duela herrian prozesuak. Horrela, 29 lagun autokulpatu dira bake epailearen aurrean, hau da, mahaiki-deen kontrako akusazioa bere gain hartu dute. Eraberean, ehiztari eta arrantzaleen



Herriko Etxeko aurrealdean HBko Mahai Nazionalaren epaiketaren kontrako pankartak ezarri dira

Esteban

Basauntz elkartea, Gazte Asanblada, Udala eta Umore Ona elkarteak «Euskal Herrian adierazpen askatasunaren aldeko manifestua» deritzona sinatu dute. Esparru ezberdi-

netako euskaldunek (kirlariak, medikuak, arkitektoak, etab...) bultzatzen zuten ekimen hau eta bertan, besteak beste, «bakerako urratsak eman daitezkeen, edozein ideia politikoen gai-

netik ideia guztiak defendatzearen eskubidea» aldarrikatzen zen. Manifestu honetaz gain, udalbatzak bandoa kaleratu zuen prozesuaren kontrako jarrera herritarrei adieraziz.

Pailazoak larunbatean plazan

Takolo, Pirritx eta Porrotx herrian izanen dira larunbat honetan, hilak 25. Arte eta Kultura kanpainaren barrenean udalak antolatzen duen emanaldi hau arratsaldeko 5etan hasiko da plazan, estreinatu berria duten ikuskizuna eskainiko omen dute gainera, pailazo eza-gun hauek.



ARESO

Santa Kruz ermitako arazoak konpondu gabe

Hezetasuna nabari zaio

JUANA M^a SAIZAR

Esanera zaharrak dioen bezala, Euria egiten duenean Santa Barbaraz gogoratzen gara. Maiatzean, Santa Kruzeko ermitara izandako erromerian ikusi zen zer nolako kaltea egiten dion hezetasunak

goiko aldean, mendia baitauka kontra. Apai-zak alkatearekin hitz egin zuen, ea auzolanean moldatzerik bazegoen, zanga egin eta tuboa sartuz, edo beste irtenbide egokiren bat bilatuz. Baina azken hila-beteetako eguraldi onarekin zeharo ahaztu

zen kontu hori. Ea orain, negua etorri baino lehen arazoa konpontzen den.

Pandero ikastaroa

Ikastaro gehiago hasi dira aurtengo ikasturtean. Panderoarena



Hiru ateraldi egin ditu dantza taldeak

Artxiboa

larunbat goizetan eta dantza talde ttikia, 5-9 urtekoak, asteazken arratsaldetan.

Bestalde, dantza tal-

de gazteak hiru ateraldi egin ditu azken hila-beteotan, Gorritira, Allira eta Sanmigeletan Huitzira.

Nafarroako aizkolari txapelketa nagusia igandean burutuko da

Arratsaldeko 5,30etatik aurrera Amazabal pilotalekuan

JOSEBA AZPIROZ

Igande honetan, urriak 26, arratsaldeko 5,30etan, Amazabal pilotalekuan ospatuko da Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketa. Antonio Jaunarena, Donato Larretxea, Mikel Mindegia, Floren Nazabal eta Antonio Senosiain, arituko dira. Lau kanaerdiko, 60 ontzako beste lau enbor eta bi oinbiko moztu beharko dituzte. Beraz, Euskal Herriko txapel-dun berria ere Leitza izanen da eta horrek ikusmina piztuko du.

Bestalde, Kultur Taldeak ekitaldi bat antolatu du egun horretarako. Arratsaldeko 5etan, berriz, kale animazioa izanen da umeentzat: zango-luzeak eta mimoak.

Herriko lanetarako zazpi langile

Nafarroako Gobernuak eta Udalak egin-dako hitzarmenari esker, zazpi langile ari dira azken hilabete hauetan herri lanetan. Gauza txikiak, baina egin be-



Karrape irratiko esatari berriak

Arantxa Iparragirre leitzarra eta Eli Belauntzaran aresoarra ari dira Karrape Irratian esatari lanetan joan den asteko asteazkenetik, eta urtebetez arituko dira. Lehendabiziko egunetan irratsaio motzagoak eskainiko badituzte ere, egunean hiru ordukoak izatera iritsi nahi dute. Zorte on! Arg.: Joseba

harrekoak. Horien artean, Plazan mugituko adokinak berriz porlanarekin hartzea. Lau urte obra hau egin zela eta konponketetan hasi behar. Adokina jartzea erabaki zutenean, bai ote zekiten "mantenimenduko" lana izanen zue-nik? Edo porlan falta ote da? Edo uste baino eu-

ri gehiago egiten du Leitza? Nork dauka erantzuna?

Urdiñolako egur lotea eta auzoetarako pistak

Ramon Zubillagak hartu zuen Urdiñolako egur lotea, eskaintza horberena egin ondoren: 6.056.080 pezeta (ha-

sierako prezioetik %20 gutxiago).

Arkiskil, Erasote eta Errekako pistak berriz, Azpiroz y Saralegi enpresak moldatuko ditu, aurkeztutako lau enpresetatik eskaintza merkeena egin zuelako (23 milioi). Lanak azaroaren bukaerarako bukatu beharko dituzte.

flash

Aurrera taldea

Lekunberrin ari da futboleko jokatzeko. Beraiek ekiporik ez eta futbol zelaia bai. Leitza bi ekipa, baina... futbol zelairik ez, oraingo. Lotsa ere bada. Hori bai, han metroko 700 pezetatan saldu zuten terrenoa eta hemen 6.000 pezeta eskatzen dituzte. Horretan ere, badago alde

Herri Batasunaren

Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa dela eta, hilaren 8an egin nahi zen manifestazioa egitea galarazi zuten guardia zibilek. Oraingoan ere, arma eta mehatxuez baliatu ziren, Iruñeko Delegazioari legeztatze eskatua zen manifestazioa egin ez zedin. Gauzak horrela, antolatzaileek, hilaren 18rako eskaera eta deialdi berri bat egitea erabaki zuten.

Nortasun Agiria

berritza ez dira Iruñetik etorri urrian, horrela iragarrita bazuten ere. Hurrena, azaroaren 14ean, etorriko dira.

muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alferdua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-katarata

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrrosia, Lumbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

MAGNETISTA NATUROPATA

☎ (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetes
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...



Basa Kabi

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

ttipi-ttapa

6.500 harpidedun
22.000 irakurle

Zure publizitatea etxe xoko guzietan

☎ 63 11 88

BAZTAN

Mitxel Aginaga nagusitu da Mendi Duatloi txapelketan

Nesken artean, Maika Ariztegi iturendarrak eraman du txapela

JOSEBA IGARABIDE

Urriaren 12an burutu zen Gartzainen Nafarroako Mendi Duatloi txapelketarako baliaigarria zen hirugarren eta azken proba. Bertan Mixel Aginaga nagusitu zen, Samuel Armendariz eta Unai Bengoaren aitzinetik eta, honenbertzez, txapel nagusia eskuratu zuen narbartearrak. Nesken artean horixe bera egin zuen Maika Ariztegi iturendarrak, hau da, Gartaingo proba irabazi eta txapela lortu zuen. Juniorren artean, Gartaingo proba Mikel Arraztiak irabazi bazuen ere, txapela Mikel Mutuberriaren zat izan da. Beteranoen artean Iñaki Madoz nagusitu da, Gartaingo proban nahiz sailkapen orokorrean.

'Hire ezinegona antolatu'

Baztango Gazte Asanbladak, 'Hire ezinegona antolatu' izeneko kanpaina antolatu du. Urriaren 31n, Baztandarren Biltzarra elkartean ETT eta zabor kontratuei buruzko mintzaldia burutuko da arratsaldeko 7etan. Azaroaren 8an, 7etan, Askagintzako kide bat droga eta menpekota-



Onddoen Astea, urriaren 27tik azaroaren 2ra

Urriaren 27tik azaroaren 2ra ospatuko da aurtengo Baztango Aste Mikologikoa. Hainbat ekitaldi berezi izanen dira. Bertzeak bertze, Luis Garcia Bonak 'Onddoen mundua mikropopioan' izeneko solasaldia eskainiko du helduendako urriaren 31n. Ikasleek bildutako perretxikoekin erakusketa zabalduko da asteburuetan Arizkunenean, urtero bezala.

sunari buruz mintzatu-ko da leku berean. Azaroaren 16an, okupazioari buruzko bideo emandia Erratzuko Zubipuntan. Azaroaren 22an kontzertua Abastos idorpean, Pilt, Skalarikak eta Piperrak taldeekin.

Argisare, karrika eta pista moldatzeak

Baztango Udalak, Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Almandoz eta Oronozko argi sarea berritzea onartu du. Eraberean, Irurita, Zozaia, Arraioz eta Erratzuko

hainbat karriken zolaberritzea ere ontzat hartu du. Bideei dagokionez, Arluzea, Erdikoborda, Dorrea, Komai-neko-mendi, Apaioa, Urrasun-Malkorreneia, Altxa-Mortalerreka, Iñarbegi, Peralats, Lastirizaharra, Peralatsi-ruin, Elorgi, Erratzuritz, Amutza, Bordaxuri, Beartzun-Xondonea, Errotazain, Mutilasko, Akullegi, Larralde, Inartzeta, Mikolonea-Gaztelumendi, Migelandi, Bailegi, Sornea, Laurienea eta Mendiolakoa moldatuko dira.

Baigorri eskola enkantean

Iruritako Baigorri eskola enkantean saltzea erabaki du Balleko Etxeak. Proposamenak udal bulegoetan aurkezteko epea akitzeaz dago.

Eskola Oronozen

30 milioiko dirulaguntza emanen du Nafarroako Gobernuak Oronozen, Lehen Hezkuntzako ikastetxea jartzeko. Datorren ikasturterako, hau da, 1998ko irailerako egina egon beharko da.

flash

Musika Eskolako zuzendaria

Baztango Musika Eskolako zuzendaria Jeanne Quertier izanen da ikasturte honetan.

Arraiozko frontoiko

goiko barandari babesa emateko lanak diruz laguntzea eskatuko dio Balleko Etxeak Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuari. Lehendik egindako eskaria ez du kontuan hartu institutu honek.

Baztan errekarren

arroa babesteko lanetarako 5.998.964 pezetako dirulaguntza emanen du gehienez Nafarroako Gobernuak Herrilan Departamenduak. Lanen aurrekontua 8.569.948 pezetakoa da eta departamendu horrek kostuaren %70a ordainduko du. Lan hau, joan den urteko uztailaren 27ko uholdeek eragindako kalteen ondorioz eginen da.

Oronozko

Txoko etxetik zubiraino eskuinaldetik bazterberde berria egin dela eta metro bateko altuera duen horma egitea eskatuko dio Balleko Etxeak Herrilan sailari, Florentino Goñi alkatearen eskaerarekin bat eginez. Errepidera lur xehea ez erortzeko egin nahi da horma hau.

OPS Ingenieros S.L.

- Topografi lanak: Lur neurketak, balorazioak.
- Nekazal proiektuak: Bideak, ur depositoak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

SOULE

Hileta artea

© 453444 • 908. 779903
ARIZKUN

BAZTAN

Oronozko bizilagunek ez dute guardiazibilaren kuartelik nahi

Batzarraren %92a kamineroen parkea horretarako erabiltzearen kontra

Josu INZIARTE

Oronoz-Mugairiko kaminero parkera guardiazibilak bizitzera etorri behar dutela zurrumurruak aditu ondotik, herritar batzuk batzarrera egitea eskatu zioten alkateari, gai honi buruz solasteko. Urriaren 4ean egin zen batzarrea eta Florentino Goñik errandakoaren arabera, «alkate hautaketaz geroztik, batzarrerik jendetsuena izan da».

«ARRISKUA ETA ERAGOZPENAK»

Jendeak bere ikuspuntuak azaldu zituen eta gero isilpeko bozketan egin zen. Honen emaitza aski garbia izan zen, botua eman zutenen %92,3a kuartela herrian ezartzearen aurka azaldu baitzen. Kuartelaren alde %2,5a bertzerik ez zen agertu eta botuen % 5,2a xurrian joan ziren. Gehienek ustez, «kuartela kamineroen parkean jartzea arrisku handia ekarriko lioke bizilagunei eta, batez ere, parkean



Guardiazibilaren kuartela Kamineroen parkean jartzea ez dute egoki ikusten Oronozko bizilagunek

Argazkia: ONDIKOL

bizi diren Nafarroako Gobernuak langileei». Atentatuak izateko aukera eta, eraberean, gauean alde batetik bertara dabiltzan ibilgailuek sortzen dituzten eragozpenak ziren bizilagunen kezka, eta lehen, kuartela herrian zegoen, gertatutako zenbait gorabehera gogoratu zituzten.

Emaitzak ikusirik, batzarreak herriaren desioa Balleko Etxeari jakinaraztea erabaki zuen,

honek beharrezko gestioak egin ditzan. Honekin batera, laupertsonak osatuko duten batzordea izendatu

zen, gai honen jarraitzea egiteko eta, azkenik, akordio honen berri komunikabideetara igortzea adostu zuten.

Folk Ametsetan Zikloa Arizkunenean

Azaroaren 2an, igandea, arratsaldeko 8etatik aitzinera Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean Zaharrek Berri taldeak (Joseba Tapia eta Ruper Ordorikak osatua) eskainiko duen emanaldiarekin hasiera emanen zaio aurtengo Folk Ametsetan zikloari. Azaroaren 9an, ordu eta leku berean, Tapan Group taldeak eskainitako musika eta dantza ikuskizuna izanen da. Azaroaren 16an, Rakoto taldeak Madagascargo musika eskainiko du.

flash

♦ Patinai ikastaroan

izena emateko epea urriaren 24ean akituko da. Ikastaroa azaroaren 8an hasiko da eta datorren urteko maiatz bitarte iraunen du.

♦ Hika solasteko ikastaroa

AEK eta Doikek hika solasteko ikastaroa antolatu dute. Urriaren 31n akituko da izen emateko epea. Ikastaro atsegina eta praktikoa egin nahi da eta irakaslea, Pascual Rekalde itzultzailea izanen da.

♦ Manifestaldi

legeztatua burutu zen larunbatean, Demokrazia 'Euskal Herriarentzat' lemapean.

♦ Soinketa ikastaroak


Arizkun eta Amaiurren astelehen honetan hasi dira soinketa edo gimnasia ikastaroa eta Erratzun ere hasteko intentzioa dute.

♦ Meningitisari

buruzko solasaldia eman zuen Baztan ikastolan Jose Antonio Iruretagoienea medikuak, gurasoei informatzeko asmoz.



• Hileta artea



KALITATEA eta ESPERIENTZIA

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udazkenerako moda-modazko antelinaz egindako arropak: Galtzak, berokiak, txaketak...

Eskulangintza materiala

Tela berriak

ZUGARRAMURDI

Udazkenarekin batera, hainbat ikastarotan parte hartzeko aukera zabaldu da

Hizkuntzak, eskulanak edo informatika ikasi ahal izanen da ikasturte honetan

MARGARI ETA KORO

Udazkenarekin batera ikastaroak ere ailegatu dira. Ezin erran ikasi nahi duenak aukerarik ez duela izanen ikasturte honetan. Momentuz martxan dauden ikastaroak hauek dira:

- **Ingelesa:** Ortziralean gaueko 8etatik 9,30etara Kisu-laben ematen da, hilabetean 5.000 pezeta ordaintzen da eta interesa duenak izena eman dezake oraindik.

- **Eskulanak:** Ortze-gun goizetan 10etatik 12etara eta arratsaldetan 6etatik 8etara ematen da Ospitalean. Hau Akelarre elkarteak antolatu du eta dohainik da, baina dagoeneko ez dago izen ematerik.

- **Euskara, gaztele-ra, frantsesa eta informatika (Word eta Excel programak):**



Astokumea Lekuberrian

Lekuberriko *Mitxeleta* astoak berriki kume bat izan du, eta ume guztieri bezala, huni ere umeen artean egotea gustatzen zaio.

Ikastaro hauek Xareta elkarteak antolatu ditu Xareta eremuan bizi direnentzat (Ainhua, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi). Ikastaro hauek

ez dira oraindik hasi eta izena emateko Udaletxera eraman behar da inprimakia.

Ikasi nahi duenak, badu non hasi!

Igeriketa ikastaroak

Urdazubi eta Zugarramurdi eskoletako haur guztiak, urtero bezala, huntan ere igeri-

keta ikastaroak hartzen hasi dira. Astelehenero Ustaritzeko piszina es-talira gaten dira eta han ordubeteko klasea hartzen dute, goizeko 11,30etatik 12,30etara. Urriaren 6an hasi ziren eta hamar astez luzatuko da ikastaroa. Hauek, ikasteaz gain ederki pasatuko dute, duikabe. Gainera, astean behin, ordubetez bederen, eskolatik ateratzeko ere ongi etorriko zaie.

Mediku ofiziala bakantzetan, ordezkoa lanean

Benedicto Agirre, *Bene*, herriko medikua bakantzetan dugu. Etxalarko semea dela nabari da eta bakantzak uso ehiziko sasoinen hartzen ditu urtero. Beraz, urriaren 12tik azaroaren 18raino Mikel Barea izanen dugu mediku.



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA



ttipi-ttapa

6.500 harpidedun
22.000 irakurle

Okindegia

Jatetxea

Uxo

Polig. Ind. Ordoki • Tfno.: (948) 45 34 03 • 31713 ARIZKUN

• **Okindegian**

• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

• **Jatetxean**

• Menua eta karta (asteburuetan)

• Espezialitate parrilan erretako jakietan



*Enkargatuz gero,
bildotsa ogi-labean errea.
Goxo-goxoa!*

BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK

GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea

TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ 58 02 78

Lapurtarren Biltzarran karro guttiago

Saratarrak han ziren, dena den

MIXEL ETA JACQUELINE

Iaz hamazazpi karro atera baziren, aurretik be-deratzi herrik bakarrik parte hartu zuten Ustaritzen ospatutako Lapurtarren Biltzarran. Egun honek, urteen arabera, gorabehera aunitz ezagutzen ditu eta aurtengoa ez zen indartsua, baina urte ahulagoak ere izan dira.

Dena den, saratarrak hor ziren eta Lapurtarren Biltzarra herriko arranguren plazaratzea dela eta, herritarrek salatu zuten Gaztetxearen eskutik den bilgunea, oztopo eta neurri ezezkor eta garratzengatik, ez dezaketela erabil nahi luketen bezala. Gai hori bertze herri batzuek ere hautatua zuten eta ez da lehen aldiz gure inguruko gazteek hori aldarrikatzen dutela.

Haur eta helduentzako dantza ikastaroak hasi dira

Ikasturte honetako dantza ikastaroak ere hasiak dira. Sei urtetarik goitikoentzat izen emateko epea urriaren 18an iragan da eta ikasgaiak larunbatero egiten dira, arratsaldeko bietarik lau etarat.

Helduentzat eta ez dakitenentzat ere mutxikoak eta jauziak ikas- teko parada eskainiko da, asteazken arratsetan 9etan. Atxik ohidura za- harrei!

Kultur Hilabetea abenduan iraganen da

Ohi den bezala aben- doan Kultur Hilabetea antolatua izanen da. Erabakia izan da aur- ten *Herriak eta Hiriak* gaiaren inguruan ari-

tzea. Gai hau zabala be- zain mamitsua denez, bide aunitz eskaintzen dizkie antolatzaileeri eta arlo askoren hun- kitzeko parada ere

emaiten denbora bere- an. Hilabete hunen an- tolakuntza elkarte hauek bere gain hartzen dute. Ohikoak, Azkai- neko Altxa Lili, Sarako Gaztetxea eta Berako Gure Txokoa, eta berri-

ak, Senpereko Oxtike- nekoak eta Etxalarko Altxata.

Ekitaldi andana bat eginen da herri haue- tan, baina egitaraua be- rantago zabalduko du- gu aldizkari hunetan.

Rural Kutxan zu bakarra zara



UNO Txartela Rural Kutxaren Visa berria

Rural Kutxan zu lehena izateko ari gara lanean: UNO

- UNO bezeroarekiko atentzioan.
- UNO zerbitzuaren kalitatean.
- UNO tratu pertsonalizatuan.
- UNO aholkuak emateko.

Horregatik aurkeztu nahi dizugu txarteletan berria den kontzeptua. Rural Kutxan zu bakarra zara.

Betikoan abantailekin:

- Erosketak ordaintzeko milaka establezimenduetan.
- Epeka ordaintzeko, komeni zaizun moduan: Erosketa Sistema Pertsonalizatua (ESP).
- Esku-dirua ateratzeko kutxazain automatikoetan. Baita atzerrian ere.
- Garrantzia haundiko aseguruak dohainik aprobetxatzeko.

Eta hala nahi bazenu, abantaila bereziekin:

- Zure Visa Txartelak Chip-monederoko ere izan dezakeelako.
- Zure argazkia sartzen ahal diozulako segurtasun haundiagorako.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

EZKONTZAK

Miguel Quevedo Lizardi eta Maria Ziaurritz Oteiza, Elizondokoak, irailaren 27an.
Miguel Amorena Zugarramurdi eta M^a Isabel Urteaga Telletxea, Irurita eta Elizondokoak, irailaren 27an.
Manuel Ignacio Iturregi Dagerre eta Rosa M^a Zelaia Urrutia, Elizondokoak, irailaren 27an.
Jose Javier Elizaintzin Vicente eta Cristina Alzuarte Arregi, Irurita eta Elizondokoak, urriaren 9an.
Miguel Javier Meoki Goñi eta M^a Jose Iparragirre Mihura, Elizondokoak, urriaren 4an.
Eusebio Mitxeo Iriarte eta Itziar Gorritxo Amezketa, Almandoz eta Iruñekoak, irailaren 27an.
Guillermo Ustarroz Alegre eta M^a Teresa Alzuarte Magirena, Oronozkoak, urriaren 11n.
Raimundo Dorregarai Organbide eta Ainhoa Iparragirre Iribarren, Irurita eta Iruñekoak, urriaren 11n.
Jose Miguel Dagerre Otxoteko eta M^a Carmen Dieguez Rodriguez, Berakoak, urriaren 11n.
Juan Francisco Iturria Goinaga eta M^a Belen Carrillo Ruiz, Donibane Lohitzune eta Berakoak, urriaren 11n.
Jose Enrique Arburua Bengoetxea eta Maite Leonis Lazkano, Berakoak, urriaren 11n.
Esteban Erbiti Iriarte eta M^a Ascension Siles Camacho, Donostia eta Berakoak, urriaren 11n.
Daniel Violet eta Patrice Pradere, Urruña eta Sarakoa, urriaren 3an.
Santi Etxenike Zubia eta Ederne Apestegia Gomez, Igantzi eta Donostikoa, irailaren 20an.

JAIO TZAK

Olaia Otxoteko Dominguez, Irungoa, urriaren 10ean.
Amaia Leiza Igarzabal, Lesakakoa, irailaren 22an.
Jon Iriarte Arrieta, Arizkungoa, irailaren 19an.
Ekaitz Maritorena Etxenike, Berroetakoak, irailaren 25ean.
Jon Zubietta Ilzauspe, Erratzukoa, urriaren 8an.
Pello Azpiroz Sustacha, Berakoa, urriaren 2an.

HERIOTZAK

Francisco Goizueta Goñi, Iturengoa, irailaren 23an, 60 urte.
Jose Ramon Loro Mateos, Donostia-koa Lesakan, irailaren 27an, 32 urte.
Lucas Zelaia Arretxea, Oronozkoa, irailaren 29an, 85 urte.
M^a Jesusa Alsua Santxotena, Arizkungoa, urriaren 1ean, 84 urte.
Micaela Guisu Oiategi, Almandozkoa, urriaren 6an, 86 urte.
Josefa Catalina Larralde Elizagoien, Lekarozkoa, urriaren 11n, 82 urte.
Jose Otxandorena Etxekolonea, Zubietakoa, urriaren 5ean, 83 urte.
Dionisi Olandegi Etxaleku, Zugarramurdikoa, urriaren 10ean, 91 urte.
M^a Carmen Mitxelena Bereau, Berakoa, urriaren 2an, 78 urte.
Pilar Arrillaga, Berakoa, urriaren 13an, 82 urte.
Joset Berhau, Sarakoa, urriaren 6an, 72 urte.
Jeanne Berekotxea, Sarakoa, urriaren 10ean, 89 urte.
Antton Daguerre, Sarakoa, urriaren 13an, 72 urte.

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbitetarako produktuez bete, emango dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA

Elizatz

ERLOJUTEGI
BITXITEGIA

*Nafarrentzat
prezio bereziak*

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

J. RAMOS

Zolak akutxilatu eta
barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

ttipi-ttapa

6.500 harpidedun
22.000 irakurle

Arreta eta zainketa pertsonala:

- Hurrei
- Eriei
- Ezindu fisiko eta psikikoei
- Bere buruaz baliatzen diren eta ez diren adintuei

Zona guziko langileak
Nafarroako mendialde osorako zerbitzua

- Garbitasun pertsonala, ohatzean daudenen mugitzea, medikazio eta jatekoen kontrola...
- Garbitasuna etxean, arropa garbitzea eta txukuntzea, sukaldia...
- Laguntza psikologikoa eta afektiboa
- Aisialdirako ekitaldietan konpainia: paseoak, irakurketa, eskurtsioak...
- Erosketak, tramiteak, gestioak edo medikuari bisitak egiteko laguntza

Urteko egun guzietarako zerbitzua, edozein ordutan (goiz, arratsalde edo gauez), behar duzunean

Nafarroako Aurrezki Kutxako Club Edad de Oro txartelaren jabeendako **prezio bereziak**
Bulego orduak: Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara.

Informazioa eta kontsultak:

Trinidad 12, behea
31860 IRURTZUN
Tel-Faxa: 50 01 28

**Zerbitzua
kontratu eta
Erantzukizun Zibileko
aseguraren bitartez
bermatua**

SEINDEA

Servicios
de Asistencia
Personal S.Coop.

Laguntza
Pertsonaletarako
Zerbitzuak Kb



Baztan-Bidasoako Euskaltzaleen Topaketak

Urriaren 7an eman zitzairen hasiera Baztan, Bortziriak eta Malerreka Euskara Zerbitzuek antolatutako Topaketei. Kasik 70 pertsona animatu dira Topaketa hauetako egitarau zabalean parte hartzera urriaren 7tik zaroaren 4a bitarte dauden astearte eta ortzegun guzietan. Euskararen historia, gazteen euskararekiko jarrerak, eskualdeko komunikabideak, euskara eta turismoa, herri ekimenak... eta bertze hainbat gai jorratu dituzte hitzaldi eta mahainguruetan.

Bidasoako XI. Bertso Paper Lehiaketa

Azaroaren 7a da lanak entregatzeko azken epea

Berako Gure Txokoa Elkar-teak eta Bortzirietako Bertso Eskolak bat egin dute Bertso Paper Lehiaketa hauxe antolatzeko. Aitzineko urteetan el-karte bakoitzak lehiaketa ba-na egiten zuen, baina aurren elkarlanean egitea deliberatu dute bi elkarteek.

Partehartzea Baztan Bidaso inguruko bertsozale guzientzako idekia dago, eta bertsoak aurkeztera animatzen direnek ohikoak diren baldintzak bete beharko dituzte:

-Gaia librea izanen da, eta librea doinua eta neurria ere.

-Lau adintarte bereizi dituzte; 10 urte arte, 2 koplak guttienez; 10-14 urte bitartekoak, 4 koplak edo bi bertso guttienez; 15-17 urte, 6na bertso bederen; 18tik goiti, 8na bertso baino gehiago.

-Bertsoen izenburua baka-rik eman beharko da karta-zalean, eta bertze gutun batean egilearen datuak eta bertsoen izenburua jarriko dira.

-Epea: Azaroaren 7a.

-Lanak helbide hontara bidali behar dira: Gure Txokoa Elkar-tea, Eztegaria ibilbidea, 31.780 Bera (Nafarroa).

Sari banaketa Gure Txokoa Elkartean egingen da azaroaren 15eko egunarekin.

Antolatzaileek diotenez aurtengoan sariak lodiagoak izanen dira bertze urteekin alderatuz, eta banaketa egin aitzinetik eskualdeko bertsolari gazteek saioa eskeiniko omen dute, sarrera gisa.

VI. Euskal Kantu Txapelketa azaroan abiatuko da

Izena emateko epea azaroaren 8an akituko da

Hemendik hilabetera, azaroaren 22an hasiko da Euskal Kantu Txapelketaren seigarren edizioa. Bi urtetik behin subertzen den txapelketa hau herrialdez herrialde jokutzen da lehendabizi, eta Nafarroako kanporaketak Burlatan eta Altsasun egingen dira aurren, eta herrialdeko finala, berriz, Doneztebeko Bordatxon.

Azken saio honetatik garraile ateratzen direnek Irún-eko Gaiarre antzokian Euskal Herriko bertze kantariekin

lehiatu beharko dute.

OINARRIAK

Banaka, bikoteka edo taldeka aurkezteko modua izanen da, kantariek 15 urtetik goitikoak eta amateurak izan beharko dutelarik, beti ere. Bina kanta zahar nahiz berri abestu beharko da, instrumentuekin lagunduta edota "a capela".

Euskal Kantuzaleen Elkartekoek adierazi zutenaz, izenematega euskarazko irratietan egin daiteke. Hemen; Xorro-

xin Irratian, 581226 telefonon eta Karrape Irratian, 610914 telefonon.



TTIPI TXARTELArekin
dirua eta gauza gehiago
irabazten da

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK saltzen dituen txartelak erosiz, gauza aunitz lor dezakezu: ttipi-ttapa lagundu, eskualdeko dendak bizkortu eta erosketak merkeago egin.
Informatzeko deitu...

631188

DATUAK.....

① Juanjo Urrutia, Saldiasako Herriko Ostatuan jaio zen duela 32 urte.

② Gaztetan pilotan jokatu eta utzi egin zuen. 24 urtetan hasi zen berriz eta orain dela bost urte egin zen profesionala, Eskulariren eskutik.

③ Aurten Bigarren Mailako eskuz binakako txapelketa irabazi du, Ansotegi aurrelari zuela.

④ Azken urtetan Asegarcen aritu dira, beste zenbait pilotarirekin batera, bertatik kanporatu duten arte.

⑤ ASPE pilotari elkartearen eskualdeko ordezkari bakarra da momentuz.

 **Juanjo URRUTIA** Saldiasako pilotaria


"Asegarce ez da inor gu pilotan ezin garela aritu esateko"

Asegarcetik kanpo gelditu diren hamar bat pilotarik sortu dute ASPE Pilotarien Elkartea. Orain, lau terdiko txapelketaren inguruan sortutako gorabeherekin ezagunak egin dira. Pilota Federazioak pilotari guziekin –ASPEkoak barne– egindako egitaraua prestatu zuen eta Asegarcek, pilotari sobera direla eta egutegia betetzeko zailtasunak aitzakitatzat jarritz, bere txapelketa ez ofiziala antolatu du.

ASPE ez da, ordea, Asegarceri erantzuteko sortutako elkarte, Juanjo Urrutia saldiastarrak dioenez. «Gu pilotan gustora aritzen gaituk, maila bat badugu, gu txiango edo gehixiango, eta iruditzen zaigu Asegarce ez dela inor, guri pilotari profesional bezala ezin garela aritu esateko». Hain zuzen ere, Asegarce ailegatzan ez den merkaturia bat badela uste du Saldiasako atzelariak: «Enpresa handiak merkatu handia du. Baina herri txiki bat ez da Asegarcen presuestotan sartzen, horrara ailegatu nahi dugu guk».

«PILOTAREN MODERNIZAZIOAREN MOTOA SALDU DU ASEGARCEK»

Saldiasako atzelariaren arabera, «Asegar-



«Pilotaz gehiago hitzegiten bada ere, frontoira ez da jende gehiago joaten»

cek pilotaren modernizazioa saldu du urteotan, baina enpresak diren bitartean ezin da pilota modernizatu. Moto bat saldu dute eta ondarean, pintura joan zaionean beste bat suertatu da». Asegarceren sorrerak, gainera, ez omen du aldatu pilotaren mundua. «Dirukon-

tuan potentziatu egin du, pilotariek gehiago irabazten ditek, telebistan ateratzen dituk, 2. mailakoak inoiz baino partidu guttiago jokatzen ditek... baina aldatu ezer ez, egiturak lehengo berberak dira» dio Urrutiak. «Pilotaz lehen baino gehiago hitzegiten da, baina frontoira ez da lehen baino jende gehiago joaten».

Pilotari bezala zenbait gorabehera izan ditu Juanjok. «Hamabost urtetan Herriarteko txapelketa jokatu nuen,

15tik 18ra ez nuen pilotarikukitu, 18tik 22ra afizionatutan aritu nintzen, bigarren mailan, partidu batzuk arituz, 22tik 24ra berriz ibili gabe eta 24 urtetan hasi nintzen berriz, astean bi egunez entrenatzen eta afizionatutan maila hartzen». Orain, pilotari profesionala da eta hortan segitu nahi du, pilota gustokoa delako. «ASPEkoaz gain, Bidarterekin daudenean eta afizionatutik etor daitezkeenekin kontatzen dugu». ■

Donato Larretxea aranztarrak Euskal Herriko txapela jantzi du

- Ezkurrako Mikel Mindegia hirugarren izan zen
- Lehen aldiz lortu du txapela Donatok

Sei aldiz Euskal Herriko txapeldunordea izan ondotik, urriaren 5ean lortu zuen Donato Larretxea aranztarrak Euskal Herriko aizkolarien txapela. Hamabi pago-enborrak ebakitzeko 36' eta 54" behar izan zituen, bigarren izan zen Peñagarikano-ri 1' 14"ko aldea atera zion, Ezkurrako Mikel Mindegia-ri 2' 40" eta Olagueko Antonio Senosiaini 4' 56".

Getxon burututako

proban sei aizkolari ari-
tu ziren lehian, baina
Floren Nazabal eta An-
jel Arrospeidek ez zuten
lana bukatzerik izan.
Azken hau, probaren bi-
garren erdian nabar-
menki aitzinetik baze-
goen ere, ezin izan zuen
azken enborra akitu eta
itxura beldurgarria
eman zuen, enbor gai-
nean zorabiatuta eta
zaldoka, arnasa ezin
hartuz gelditu baitzen.
Gaua hospitalean eman
behar izan zuen Leabu-

rukoak eta epaileen la-
nari zenbait kritika egin
zitzaien.

Larretxeak txapela
lor zezakeela ikusiz, az-
ken aizkorakadak eman
zizkion kanaerdikoari
eta garaipena lortu zuen,
lehen aldiz Euskal He-
rriko txapela bururatu zuen.

NAFARROAKOIA IGANDEAN LEITZAN

Igande honetan,
urriak 26, Nafarroako
lehen mailako aizkola-
ri txapelketaren finala



Larretxeak azken enborra arte eutsi zion eta lehen aldiz Euskal Herriko txapela bururatu zuen Egin

burutuko da Leitzan. nazabal, Larretxea eta Senosiain arituko dira.




EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • API 129

INFORMAZIOA: 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908.77.76.96

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



Ultzama. • Eltzaburun borda salgai, 150na m²ko bi solairurekin. Sarbidea eta ura baditu. 6.000.000 pta.



Irurita. • Pisuak, apartamentuak, bajera komertzialak salgai, konstruktoreak zuzenki emanak. 6.500.000 ptatik aurrera. Ordain-
tzeko erraztasunak.



Goizueta. • Egoera onean dagoen borda salgai. 30.000 m²ko lur-eremua du. 6.500.000 pta.



Baigorri. • Bi etxe salgai, 4na pi-
su, bajera komertzial eta lur-eremu
edifikagarria. 17 milioi negoziagarri.



Eratsun. • Bizitzen jartzeko mo-
duko txaleta salgai, 60na m²ko bi
solairu eta lorategia. 11.300.000 pta.



Doneztebe. • Aparanen 150 m²ko
pabiloi industrial salgai. 10.500.000
pta. Edo alokatuz, 70.000 hilabetean.



Irurita. • 20.000 m²ko lur-eremua
duen baserria salgai. Ura eta argia
baditu. Moldaketa behar du.
12.500.000 pta.



Otxagabia. • 90na m²ko bi solai-
ruko borda salgai, 20.000 m²ko lur
eremuarekin batera. 4.500.000 pta.



Ituren. • Herri-lurretan dagoen 57
m²ko borda salgai, bista politak eta
sarbidearekin. 1.200.000 pta.



Irurita. • Hostal Baztanen parean,
errepide ondoko bajera arras ko-
mertziala errentan emateko. Ezauga-
rriak: 118m²erakusleho zabalak, gres
zola, kalefakzioa, sukalde ekipatua, bu-
legoa. Ileapaindegia, akademia, ostalua,
kafetegia edo bainu-gaien dendarako
egokia. 50.000 pta hilabetean.



Leitza. • Herritik 150 metrora
dagoen errota salgai, 100na m² in-
guruko 3 solairu eta bista politte-
kin. Sagardotegia, landa-etxea edo
berendulekua jartzeko egokia.
8.000.000 pta.

AGENDA EGUNEZ EGUN

FERIAK

ELIZONDO

► Urriaren 24-25an

Xehetasunak erdialdeko gehigarrian.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► Urriaren 10etik

29 artio Jose M^o Rezola margolariaren erakusketa ikusgai Arizkunenea Kultur Etxean. Arratseko 7etatik 9etara. Igandean itxita.

IKASTAROAK

BAZTAN

► Azaroaren 7an

hasiera emanen diote hitanoa mintzatzen ikasteko Doikek antolatu duen ikastarari. Sei ostiraletan zehar luzatuko dira bi orduko saio hauek. Izen-ematea urriaren 31 baino lehen egin behar da AEKko euskaltegian (452471) edota Euskara Zerbitzuari (580006/581007).

UDAZKEN KULTURALA

IGANTZI

► Urriaren 29an

Hitzaldia: "Landareak eta frutarbolak". Jakoba Errekondo.

► Urriaren 31n

Mahaingurua: "Baserri-tik mahaierako bidea".

► Azaroaren 1ean

Txiste Afaria Lasarteko txiste kontalariekin.

ARANTZA

► Azaroaren 2an

arratsaldeko 5etan Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoen emanaldia izanen da.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 6.700 pta.
- Zerri gizona (95-100): 203 pta./kilo
- Zerramak: 150 pta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pta./kg. Kanal
- Extra 520
- 1.koa 500
- 2.koa 480

• Urruxak: Pta./kg. Kanal

- Extra 550
- 1.koa 520
- 2.koa 490

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak 18.000 eta idixkoak 25.000 Pta.

Mestizoak: urruxak 26.000 eta idixkoak 38.000 Pta.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 370 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE



Argazkia: Ayla

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Lurraren Eguna Beran

Urriko azken igandea ailegatzenean ari zaigula eta, dena punttu-puntu dago Lurraren Egunaren 11. ediziorako. Artisauak gaur-gero bereizi izanen dituzte jendaurrean agertu beharreko eskulanak eta baserriarrak ere gasna lehia-ketan aurkeztu nahi duten alea aspaldixko prestatua izanen dute.

Bertze urtetako ekintza gehienak mantenduko dira, hala nola, Lizuniagako Igoera (krossa), Dantza Emanaldia nahiz Eskulan eta Barazki Erakusketak. Bainan aurten berrikuntza nagusia Sagardo Erakustaldia izanen da dudarik gabe, nahi duen guztiak etxeko sagardoa dastatzera emateko aukera edukiko baitu goizeko 10,30etatik aitzine- ra, eta hala nahi izanez gero Sagardo Lehiaketan parte hartu.

Gainerakoan ez da aldaketa haundirik nabari egitarauan, eta beti bezala musikak bere tokia ukanen du. Goiz eta arratsalde txistu-akordeoi-trikiti-lariak adi- tuko ditugu, eta ilunabarre- an Amaia eta Kristinak dantzan paratuko dute Al- tzateko plaza.

LIBURUAK



«Kalezulo»
Jexuxmari MENDIZABAL
ALBERDANIA

Jexuxmari Mendizabal, Bizargo- rri, Ormaiztegin jaio zen 1949an, eta gaur egun irakasle bezala egi- ten du lan. Bere 6. liburua den honetan drogen inguruko mundua izan du hizpide gipuzkoarrak, eta horretarako bere ikasle izandako 3 irundar gazteren aitoren bildu- ma egin du. Kontakizuna ere lru- nen bertan kokatua dago. Liburua batez ere gazteei begira eginga dago baina ez omen du mo-

ralizantea izan nahi, eta hizkun- tza aldetik ahalik eta errealismo haundienaz idazten saiatu da egile- a, karrikan erabiltzen diren jerga- ko hitzak eta esaldiak erabiliz. Xedea ez da aterabideak bilatzea -funtsean ezinezkoa da- baizik eta gaiaren gainean gogoeta eta gal- dera zenbait pausatzea. Bere ga- rraztasun guziekin ere bizitzak se- gitzen duela da Bizargorrik igorri nahi digun mezua.

JAKIN BEHARREKOAK

Etxean egin beharreko konponketa horiek...

Zenbait lan egiteko nahi-tanahiezkua dugu zurgina, igeltseroa, margolaria, iturgina eta gisa horretako profesionalengana jotzea. Nork baino nork hala egin du, sukaldea paratu, teilatua konpondu edo leihoak aldatu behar izan dituelarik, eta beti ez bada ere, batzuetan arazoak subertu izan dira.

Izan ere, etxeko konponketen inguruan sortzen dira gure bulegoetan bideratzen dizkiguten kexa aunitz. Hori gerta ez dadin, hona hemen kontuan izan beharreko aholku batzuk:

Aurrekontua eskatu beti

Edozein langile kontratatu aintzinetik aurrekontua eskatu. Ohikoa da ezagunen artean presupuestoa ez eskatzea, batzuen ustez elkarrekiko konfidantzaren islada delakoz. Hala izanik, jakin behar dugu aipatutako profesional guztiak behartuak daudela guk eskatuta aurrekontua egitera, baita



Sinatu ondotik ezin dira ez aurrekontua eta ez egin beharreko lanak aldatu, bi aldeek adostasunaz ez bada behinik behin.

errespetatzera ere, eta kontsumitzaileok dugun garrantiarik haundiena horixe dela. Kontuan izan ezin digutela presupuestoa kobratu, aintzinetik errana onartzen ez badugu!

Aurrekontuak oso-osoak eta zuzena izan behar du, materialak, lan orduko prezioa, hasi eta akitzeko epeak eta zergak agertu behar dute. Kontuan hartuta lan

gehientsuenak gibelu egiten direla, hobe da atzerapenaren araberrako penalizazioa ere paratzea. Hitzartutako eguna baino beranduago akitu behar badute, bi aukera izanen ditugu: lanak amaitzen utzi eta penalizazioa kobratu edo kontratua bertan beheiti utzi. Bigarren erabaki hau hartzeko, halere, aurretiaz zenbait urrats eman behar dira.

Guzti hauek jakinik ere arazoak sortzen ahal dira. Horregatik, hobe da *Juntas Arbitrales de Consumo* delakoaren barne dauden enpresak kontratatzea. Enpresa hauek Nafar Gobernuak ematen duen ikurra begibistan izaten dute.

IRATXE Kontsumitzaileen Elkarte

«Ohikoa da ezagunen artean presupuestoa ez eskatzea, batzuen ustez elkarrekiko konfidantzaren islada delakoz».

DISKAK



«Bazterretan zer dago?!»
BELTZEZ
R. DIZKA

Donibane Lohitzunen sortu zen Beltzez taldea 1.989. urtean. Hiru urte beranduago R-Dizka etxea sortu zen eta 1.994. urtean taldearen lehen ekoizpena plazaratu zuten. Gainera, bilduma askotan aurkitu ditza-kegu Beltzez-en kantak: hala nola, *Inguma*, *Insumisioa* edo *Betizuen Murruak*. *Bazterretan zer dago?!* bigarren disko honetan, euren bideari jarraiki,

Beltzez taldeko bost partaide-ek Ipar Euskal Herrian ere hard-corea egiten dela erakusten dute.

Lan hau Berrizko Lorentzo Records estudioetan grabatu zuten pasa den udan, *Cocker* (harmonika) eta *Kapten Egu-rrak*-eko Kuntzulu (koroak) laguntzaile izan zituztelarik. Hemeretzi kantuetako bat talde hori bertsioneatuz egin dute.

AGENDA EGUNEZ EGUN

UDAZKEN KULTURALA BERA

► Azaroaren 3an

Hitzaldia: "Itsasoari begira". Joxe Ramon Agirre.

► Azaroaren 5ean

Hitzaldia: "Bi emakume Turkiatik Birmaniarra bizikletaz" Esther Mugerza eta Amaia Elsegui.

OSPAKIZUNAK

BERA

► Urriaren 26an

Lurraren Eguna. Eguna osoan zehar artisauak, taloak, gasna lehiaketak...

MINTZALDIAK

BAZTAN

► Urriaren 31n

Baztandarren Biltzarra elkartearen ETT eta zabor kontratuei buruzko mintzaldia burutuko da arratsaldeko 7etan.

AFARIAK

BERA

► Azaroaren 8an

Lizaso eta Murua bertsoari buruzko afora izanen da Agerra Mendi Taldearen egoitzan. Tfnoa: 6311130.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► Urriaren 20tik 26ra

Bera, Narbarte, Lezaun, Urdazubi, Leitza, Goizueta.

► Urriaren 27tik azaroaren 2ra

Arantza, Doneztebe, Iturralde eta Goizueta.

► Azaroaren 3tik 9ra

Ettxalar, Sunbilla, Lezaun eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den
zure anuntzioa
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU



ORONÓZ-MUGAIRE

Hirugarren pisua salgai,
Bertizko Jaurerria bistatuz.
Ezinhobeia, Hiru logela,
egongela, komuna eta
trastelekua.
☎ 580804

BERA. Pisua salgai. ☎ 630392.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

DONEZTEBE. Pisua errentan emanen nuke, moblerik gabe. ☎ 451661.

LEITZA. Asteburuak igarotzeko borda bat alokatuko genieke familiei. Leitza-tik bertan eta ongi prestatua dago. ☎ 510321.

BERA. Agerra auzoan pisu moblezatua errentan emanen nuke. ☎ 630557 (eguerdietan).

IRUÑEA. Pisua alokatzen da San Nikolas karrika 29an, 3. pisua. ☎ 615124 (2etatik 4etara).

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Pertsona bat behar dugu pisua osatzeko Iruñean. ☎ 240969.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

BERA. 260m²ko bajera saldu edo alokatuko nuke. Eztegarra 21. ☎ 630084.

LESAKA. Bajera salgai, 23 m². Bittiria 37. ☎ 637938.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Lur-azpiko bajera alokatzen da Albistur karrikan. ☎ 637948.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

LESAKA. Nabazen etxeak egiteko 4.000 m²ko lur eremua salgai. ☎ 637212.

BERA. 12.522 m²ko terrena salgai. ☎ 630040.

LOKAL KOMERTZIALAK

117 TRASPASOAK

BERA. Nafarroa denda (turistentzako Nafarroako produktua bereziak) traspasatzen da. Interesatuak, deitu ☎ 631151 edo 631199.

BERA. Lokal komertziala errentan emanen nuke, Legia karrikan. Akondizionatua eta komertzio bezala zabaltzeko prest. 30 m². ☎ 631429 (eguerdietan).

LANA

301 ESKARIAK

Laguntza klaseak: piano, tekladoak, solfeo, OHO, BBH, UBI. Esperientzia handia. Zure etxera joan naiteke. ☎ 970-406651 (Utzi mezua) Garbiñe.

Lesakan trikitixa, pandero eta kantu klaseak emanen nituzke. 'Aurrez aurre' ikasi nahi bada ere, aukera bada (Joseba Iparragirre). ☎ 637907 (Jone).

Solfeo eta piano tituluak dituen musika irakaslea bere lanarekin zerikusirik duen edozein lanetan ariko litzateke. Haur eta afizionatuendako klase partikularak barne. ☎ 943-635223 (Irun).

Etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 630417 (Eduene).

LANA

302 ESKAINTZAK

Txapista behar dugu Berako auto kontzesionario batean lan egiteko. Lehen mailako ofiziala behar du, Bancadan esperientziarekin. ☎ 631157.

zimeldi

Sukalde eta bainurako armarioak

Zimeldi • ETXALAR
☎ 948-387017

Lan egiteko gogoia duten pertsonak bilatzen ditugu, Baztan-Bidasoa eta Leitzako zonaldean. Autoa izatea beharrezkoa da. Informazioa: ☎ 580167 (Milagros, gaueko 9,30etatik 10,30etara).

Neska behar dugu kamarrera gisa lan egiteko. ☎ 637807 edo 627517.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

Sukaldeko mobleak neurrian; enzimera, elektragailu aldaketak,... sukalde osoen muntaia. ☎ 970-406651 Xabi.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Yamaha RD 350 motoa salgai, karreterakoa. NA-Z. ☎ 627587.

Opel Kadett GSI 2.0 salgai, 3 ate. 89koa, extrekin. 500.000 pta. ☎ 637059.

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 630689 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

NISSAN BERABI tailerrak

Bigarren eskuko kotxeak:

Peugeot 309 NA-Y, Kadett GSI
Nissan Terrano II NA-AJ
Nissan Primera 1.6 SLX NA-AL
Kotxe berrietan ofertak

Audi SAMPI

Kadett Van Diesel
Golf TD, Ford Fiesta, Seat Ibiza
Suzuki bat eta bi Niva

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

MENDAU MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

- Opel Astra, Corsa Diesel
- Ford Fiesta / Kadett 1.8i
- Vitara Diesel / Kadett 1.6
- Suzukiak: Samurai eta Vitara

BOAN TAILERRA CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 63 06 23 • BERA

Renault 11 GTD 1.6 salgai, 85ekoa. 150.000 pta. ☎ 637059 (Denda orduak).

Ford Escort XR 3i salgai. NA-O matrikula, egoera onean. ☎ 637504 (asteburuetan).

Citroen ZX 1.4 salgai, NA-AF matrikuladuna eta egoera onean. ☎ 599008.

Citroen C-15 salgai, NA-AM matrikuladuna, diesel. ☎ 510558 (eguerdi edo arratsetan).

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

Ehizi txakurra salgai, Griffon arrazakoa. Hiru urtekoa. 25.000 pta. ☎ 599061.

Esne behia salgai, 5 hila-bete ernari eta esnealdi ederrarekin. ☎ 581023.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

SAME Corsaro 70 traktorea salgai, piñonezko "rotabator"arekin. ☎ 627587.

Gasoil depositoa salgai, 500 litrokoa. 15.000 pta. ☎ 637317 (arratsaldetan).

Esnea hozteko Alfa Laval tankea, 150 litrokoa, salgai. ☎ 635009.

Esne tankea salgai, 200 litrokoa. Merke. ☎ 615016.

Tabernarako lau altaboz Bosse markakoak eta Phoni etapa salgai. ☎ 510021.

Egurrezko sukalde kalefaktorea salgai. ☎ 450242.

Berako Jose Lanzek bi behor karro merke salduko litzuke. ☎ 630084.

Gitarra salgai, Hammer special markakoa. Gutti erabilia. ☎ 630317 (Joseba).

ttipi-ttapa

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188

Wua-Wua salgai, Cry Baby (Jimmy Hendrix). ☎ 630317 (Joseba).

Billar amerikarreko mahaia salgai, primerako egoeran. 35.000 pta. ☎ 393115 (Jose Luis).

Hergon sukalde kalefaktorea salgai, eta 100 litroko LAPESA ur depositoa ere salduko nuke. ☎ 630920.

Teila zaharrak salgai. ☎ 592296.

Esne-kupoa salgai, 2.775 kilo. ☎ 637012 (gauez).

Gerezi landareak salgai. ☎ 635480 (9etatik aitzine-
ra).

Egurrezko salamandra erosiko nuke. ☎ 450056.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Zorionak Etxalarko Ainhoa Berruetari; urriaren 14an 16 urte bete dituelako. Etxalarko koadrila guziaren partez. Aupa Ainhoa!

Berako Labiaga ikastolako DBH 1.eko beratar guziei. Eskerrik asko, zareten lagun onak izateagatik eta zuen koadrilan onartzeagatik. Lagun baten partez.

Aupa Trio Pokapena! Ea noiz egiten dugun kanpina. Zuek badakizuen pertsona bat.

Elizondoko Hilariori: Urriak 19an urteak bete dituelako, zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta berexiki Axi eta Nagoren partetik.

Ushuaia-rentzat: Mutil jatorrak gara eta harremanak izateko prest gaude (jarri nola). P.L.R.

Zorionak Lekarozko Arantxa Goñiri urriaren 30ean 16 urte beteko dituelakoz. Moñoña bat zara. Iruritako N. eta I.

ttipi-ttapa

Ameriketara
bidaltzea
erdi
prezioan
gure
bitartez



Frankeo Kontzertatuari esker, errebista berbera guk bidali ezkeror, zuk bidalita baino erdi prezioa kostako zaizu.

Iparaldetik deitzeko 19-34-48-
Hegoaldetik deitzeko 948-

631188



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Jakinarazten dut:

1997ko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA:

Ordainketak banketxetan helbideratuak ez dituztenak:

Abisuan agertzen den kontura eginen da ordainketa edozein banketxetan, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA:

- 1997ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea abenduaren 31a arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez % 20aren errekaragurekin kobratuko da.

Bortzirietan, 1997ko urriaren 1ean
PRESIDENTEA
Miguel M^a Irigoien

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Iñaki Aranburu Mitxelena
aurtitzarrak urriaren 19an egin ditu 6 urte. Zorionak eta muxu bat ama, aita eta Julenen partez.



Zorionak Donamiriko Mikaelari
urriaren 17an bere urtebetetzeara zelakoz. Muxu haundi bat izaskun, Inigo eta familiaren partez.



Ugutz Zelaia
oiztarrak urriaren 17an bete ditu 7 urte. Zorionak aita, ama, Garaile eta Lau-rendiren partez. Muxu bat.



Iñaki Gallardon Eugi
etxalartarrak 3 urte egin ditu urriaren 21ean. Egun on bat pasa! Familia eta lehen-gusinen partez.



Ane Lasa Gallardon
ek 5 hiru urte beteko ditu urriaren 26an. Zorionak bere guraso, ahizpa Josune eta familiaren partetik.



Josune Lasa Gallardon
ek 5 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak guraso, ahizpa Ane eta lagun guzien partetik.



Josetxo Ezkurra Arozena
doneztebarrak 5 urte beteko ditu urriaren 25ean. Zorionak gurasoen partetik.



Alex Agirretxe Landak
urriaren 3an 7 urte bete ditu. Zorionak Olaia eta Soniaren partetik.



Coloradon dagoen **Jose Mari Iriarte** zorionak, Sunbilla. Doneztebe eta Lesakako senide guzietan. Bereziki bere amaren partez eta baita bere ondoan dagoen emaztearen partez ere.



Matixa Oteiza Goienetxe
lesakarrak 5 urte beteko ditu urriaren 25ean. Zorionak eta muxu bat zure guraso eta ahizparen partez.



Maider Bertiz
doneztebarrak 14 urte beteko ditu urriaren 26an. Zorionak klaseko lagunaren partez. Ongi pasa!!



Aitor Escagües Dozagarat
beratarrak 4 urte egin ditu urriaren 27an. Zorionak bere familiaren partez.



Xabier Ibarrola Goñi
doneztebarrak 4 urte egin ditu azaroaren 15ean. Zorionak Imanol anaia eta zure gurasoen partez.



Maite Pikabea Arribillaga
beratarrak 23 urte bete ditu urriaren 15ean. Zorionak. Xabi, Unai eta Eneko.



Nicolas Etxarte Txoperena
Dixongo igantziarrak urriaren 24an urteak bete ditu. Zorionak Espainiako familiaren partez.



Nicky Etxarte Perez
Dixongoak (California), 24 urte beteko ditu azaroaren 9an. Zorionak Espainiako familiaren partez.



Monika Etxeberria Balda
ezkurdarrak 9 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak familiako guzien partetik.



Vicente Arozena Andueza
urteak bete ditu urriaren 17an. Zorionak. Maikaren partez.



Unai Arozena Marizkurrena
3 urte bete ditu urriaren 17an. Zorionak Maikaren partez.



Aitor Escagües Dozagarat
beratarrak 4 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak Leirenen partez.



Inigo Pacheco Bengoetxea
elizondarrak 4 urte bete ditu urriaren 6an. Nahiz eta berandu, zorionak Leirenen partez.



Javier Urrutia Karrikaburu
elizondarrak 4 urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak Leirenen partez.



Maria Barredo Telletxea
beratarrak 18 urte bete ditu urriaren 15ean. Zorionak gurasoen eta anaiaren partez.



Jose Luis Tainta
lesakarrak 34 urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak maitasunez.



Nahia Artieda
beratarrak urriaren 18an bete ditu 9 urte. Zorionak eta muxu haundi bat. Iker eta Joar.



Arantxa Goñi
lekaroztarrak urriaren 30ean. 16 urte beteko ditu. Zorionak, aupa! eta segi beti bezain umoretsu. Lagunak.



Janire Bakero Olaizola
goizuetarrak zorionak lehen urtebetetzeari. Segi hoinen salada xaguren hortzekin. Gurasoak eta Xumar.



Eider Zugarramurdi Osa
goizuetarrak 7 urte beteko ditu urriaren 24an. Zorionak eta musu asko. Gurasoak, Mikel eta amona.



Ander Rodriguez
lekaroztarrak 10 urte beteko ditu azaroaren 12an. Zorionak familia guziaren partez.



Felix Korta Lekuona
beratarrak 80 urte beteko ditu azaroaren 5ean. Zorionak familia guziaren partez.



Jaime Sein Osinaga
doneztebarrak 7 urte beteko ditu azaroaren 5ean. Zorionak eta muxu bat gurasoen eta Jonen partez.



Oihana Otermin Zabaletak
urriaren 23an 9 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



Mikel Torres Novalichese
Bakersfieldeko muttiko maitagarriari zorionak bere urtebetetzeari. Mikel eta Julenen partez, bereziki.



Presen Ustariz
gure ama-amatxi zoragarriari zorionak bere urtebetetzeari. Mikel eta Julenen partez, bereziki.



Elisa Barreneite Almandoz
burlatarrak 4 urte beteko ditu urriaren 29an. Zorionak Elbetoko familiaren eta Aitorren partez.



Jon Dozagarat
beratarrak urriaren 24an 22 urte beteko ditu. Zorionak Aitor, Leire eta Jabierren partetik.



Teresa Linazasoro Igoa
beratarrak 82 urte bete ditu urriaren 15ean. Zorionak zure familiaren partez.



Xole Garmendia Etxebeste
beratarrak urriaren 14an bete ditu 34 urte. Zorionak zure familiaren partez.



Itsaso Arretxe Goñi
elizondarrak 2 urte bete ditu urriaren 21ean. Auniz urte eta muxu bat, Imanol eta gurasoen partez.



Marifak
urteak beteko ditu urriaren 29an.



Iñakik
urteak beteko ditu urriaren 27an.



Juanok
urteak bete ditu urriaren 14an.



Germanek
urteak bete ditu urriaren 7an.



Ganix Mitxelenak
urteak beteko ditu urriaren 27an.



Mikel
(ondokoaren aita) urteak bete ditu urriaren 2an.



Juan Luisek
urteak bete ditu urriaren 22an.



Mamen Olano
leiztarrak 22 urte bete ditu urriaren 20an. Zorionak Leizta eta Goizuetako lagunaren partez.



Leire Uterga Labiano
Doneztebarrak 12 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



Itxasne Lasaga Gortari
donamariarrak 8 urte egin ditu urriaren 7an. Zorionak zure familiaren partez.

Zorionak Zugarramurdiko sorgin talde honi. Ongi pasau eta guti gastau!!!



Sara.
• Etxe oso bat eta 1.500 m²ko lur eremua salgai.



Elgorriaga. • Pisua, garaje eta ganbararekin salgai. Premiazkoa izateagatik, merke salduko dira.



Donamaria. • Hiru solairuko etxea salgai. Baratzea eta garagea. Arras berritua.

Beran edo Lesakan pisuak hartuko genituzke errentan, konfidantzazko laguntzat, ongi ordaintzeko.



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 451841 • 908.77 86 53 • e-mail: julizu@zaros.com

Parrokia 9, bajeran **DONEZTEBE**



Elgorriaga. • Etxe honen I. planta, bere bajearekin salgai, arras polita.



Elizondo.
• Braulio Iriarten pisu erreformatua salgai. 6.000.000.

Etxeak egiteko lur erabilgarriak:

- Mugaire: 500 m²
- Donamaria: 6.000 m²
- Doneztebe: 1.700 m²

Belategiak:

- Oitz: 10.000 m²



Bera. • Matxako ostatuaren gainean, bigarren pisua salgai, erabat berritua. Saltzeko premia handia.



Igantzi. • Lehenbiziko pisua salgai. Berri berria. 11.000.000.

Errentan emateko pisuak:

- Donezteben
- Narbarten
- Legasan

Bordak erosi nahi dira edozein tokitan. Egoerak ez du inporta.



Etxalar. • Herritik 10 Km.tara, baserri eder bat bere terrenoarekin.



Bera. • Etxe berria salgai. 3.000 m². Suspela auzoan.




Igantzi. • Etxe adosatua salgai. Bi solairu, garagea eta baratzea.

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo ugariko mogleak

K



ERAKUSKETA

Bitirria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034

LESAKA

LOGELAK • EGONGELAK • TRESILLOAK • KUTXAK • BESAUUKIAK...

XI. Lurraren Eguna

Urriak 26an
Bera

EGITARAUA

GOIZEAN

10,30etan. Barazki eta sagardo erakusketa, Bortzirietako produktuen salmenta, Gasna lehiaketa eta Lizuniagako Igoera Lasterketa.

Eskulangileen erakusketa egun osoan zehar.

11tan. BERA trikitixa eta Musika Eskolako akordeoilari, txistulari eta txalapartariak.

12etan. Basauriko dantza taldearen emanaldia.

2etan. Bazkaria eskolan.


ARRATSALDEAN

3,30etan. Taloak eta Sagardoa. Zizkuitz txaranga.

5etan. Gasna lehiaketako sari banaketa eta enkantea.

Ondoren, Amaia eta Kristina taldearekin dantzaldia Altzateko plazan.

Kultur Etxean: Kubako "Entrevoces" abesbatza.



Antolatzailea: GURE TXOKOA ELKARTEA

Laguntzaileak: Ricardo Baroja Eskola,
Labiaga Ikastola, Jesusen
Bihotza Ikastetxea,
Toki Ona, Erausian eta
Bortzirietako Euskaltegia.

Babeslea: Berako Herriko Etxea